

BESTELAKO XEDAPENAK

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA

3346

AGINDUA, 2025eko uztailaren 22koa, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza sailburuarena, zeinaren bidez doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programako laguntza berrien eta laguntza-berritzeen deialdia egiten baita eta deialdirako oinarriak ezartzen baitira, 2025-2026 ikasturterako.

Ikertzailearen Europako Gutunean (EEE/2005/251/EE), ikertzaileak definitzen dira jakintza, ezagutza, produktu, prozesu, metodo eta teknika berriak sortzen diharduten profesional multzo modura. Kalifikazioa gorabehera, definizio horretan biltzen dira, haien karrerako edozein etapatan, ikerkuntzan eta garapenean profesionalki ari diren pertsona guztiak. Horrela, bada, Eusko Jaurlaritzak arlo horretan daraman zientzia-politikako beste urrats bat da ikerketa-jarduerak sustatzea, prestakuntza-aldiko hasierako etapetan ikertzaileak kontratatuz. Doktoregoa, berriz, ikerkuntza-karreraren sartzeko atea da, eta zientziako edozein arlotan ikerketa erabat garatzera bideratu behar du.

Doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programa hau ikerkuntzarako giza baliabideak sustatzeko politikan sartzen da, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako 2023-2026 Unibertsitate Sistemaren Planean eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2030 Planean (ZTBP 2030); ildo horretatik, programaren helburua da lanbide-jarduera ikerkuntzara bideratu nahi duten goi-mailako tituludunen berariazko prestakuntza bultzatzea. Ekintza hori oso esanguratsua da, Euskadik ikerketako talentu espezifikoak bultzatzeko, bai eta zientzia eta teknologiaren arloan belaunaldi-txandaketaosatzea sustatzeko ere. Hori guztia Ikertzailearen Europako Gutunari eta Ikertzaileak Kontratatzeko Jokabide Kodeari (EEE/2005/251/EE) buruzko Europako Erkidegoko Batzordearen Gomendioaren arabera.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen (irailaren 5eko 17/2022 Legearen bitartez aldatua; aurrerantzean, ZTBL) 20. artikuluan, ikertzaileen lan-izae-rako lan-kontratuen modalitateak eta horiei aplika dakiekeen araubide juridikoa definitzen dira, eta, 21. artikuluan, berriz, doktoratu aurreko lan-kontratuaren modalitatean egindako kontratuen egoera juridikoa, kontratuen betekizunak, ordainsariak, dedikazioa eta aipatutako kontratuaren iraupena. Halaber, doktoratu aurreko prestakuntza jasotzen ari diren langile ikertzaileen Estatu-tua onartzen duen martxoaren 1eko 103/2019 Errege Dekretuaren (aurrerantzean, PLIE) xedea da aurreko paragrafoan zehaztutako lan-harremanaren araubide juridikoa garatzea eta doktoratu aurreko prestakuntza jasotzen ari diren langile ikertzaileen izaera definitzea.

Halaber, doktoratu aurreko kontratuaren esparruan, doktoratu ondoko orientazioko aldi bat garatu ahal izango da, hamabi hilabetez gehienez, eta doktore titulua eskuratu ondoren, ikertzaileen lanbide-hobekuntza eta -espezializaziorako. Hori guztia, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 21.a) artikuluan emandako idazketa berriaren arabera (irailaren 5eko 17/2022 Legearen bitartez aldatu zen). Edonola ere, kontratua ezingo da lau urtetik gorakoa izan.

Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak (EAEko Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) sail honi eskumenak eman dizkio zientzia-alorreko politikan eta ikerketa teorikoa eta aplikatua sustatu eta koordinatzeko arloan.

Deialdi hau ebazteko, kontuan izango dira administrazio publikoen dirulaguntzak emateko jardura arautzen duten printzipioak –publikotasuna, lehia, objektibotasuna, ezarritako helburuak betetzeko efikazia, baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia, gardentasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza–, Dirulaguntzen Araubidea Arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legean ezarritakoaren arabera, eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren (DLO) (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez garatu zen) oinarritzko manuekin eta, laguntza eta dirulaguntzei aplikatu beharreko gainerako xedapenekin bat etorriz, eta eskura dauden baliabide ekonomikoak aplikatuko dira agindu honetan ezarritako irizpideen arabera.

Deialdi honetan arautzen diren laguntzak Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren 2025eko maiatzaren 16ko Aginduan jasota daude; agindu horren bidez, sailaren 2025erako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 8/2024 Legean ere daude jasota.

Halaber, Lege hauetan xedatutakoaren mende dago deialdia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duena, eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta 887/2006 Errege Dekretuan jasotako oinarritzko erregelazioa, azken horren erregelamendua onartzen duena.

Saileko sailburuari dagokionez, deialdia egiteko eskumena du; zehazki, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.1 artikulua xedatzen du sailburuak direla, oro har, dagozkien esparruetan dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartzeko eskumena duten organoak.

Era berean, sailburuak dira beren eskumen-eremuan dirulaguntzak emateko eskumena duten organoak (20/2023 Legearen 10.1 artikulua). Haatik, artikulua berak aukera ematen du dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileetan ahal hori deskontzentratzeko; hau da, eskumen hori beste organo batzuei esleitu ahal izango die. Halaber, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuari dagokio deialdi hau ematea, arau hauetan xedatutakoaren arabera:

– 17.1 artikulua (18/2024 Dekretua, ekainaren 23koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen).

– Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 23ko 494/2024 Dekretuaren 1. eta 4. artikulua.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Onartzea doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko Doktoratu Aurreko Programako laguntzen 2025-2026 ikasturterako deialdia eta deialdiaren oinarriak, doktorego-tesi bat egitera bideratutako ikerketa finantzatzeko.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Bitartekoak.

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen

urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta hurrengoetan. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.a) eta 46.1 artikuluetan.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 22a.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburua,
JUAN IGNACIO PÉREZ IGLESIAS.

I. ERANSKINA

DOKTORE EZ DIREN IKERTZAILEAK PRESTATZEKO DOKTORATU AURREKO
PROGRAMAKO LAGUNTZA BERRIEN ETA LAGUNTZA-BERRITZEEN DEIALDIAREN
OINARRIAK, 2025-2026 IKASTURTERAKO

I. KAPITULUA

PROGRAMAREN XEDEA ETA BALDINTZAK

1. ATALA

XEDEA, ZENTROAK ETA FINANTZAKETA

1. oinarria.— Xedea.

1.— Programaren helburua da ikertzaileen prestakuntza sustatzea doktore titulua lor dezaten eta doktorego-programa bateko kalitatezko ikerketa zientifikoarekin lotutako gaitasunak eta trebetasunak eskura ditzaten, martxoaren 1eko 103/2019 Errege Dekretuak (Doktoratu aurretik prestakuntza jasotzen ari diren langile ikertzaileen estatutua onartzen duena) deskribatutako arloan.

2.— Halaber, prestakuntza-programa honen bitartez, doktore titulua lortu ondoren doktoratu osteko orientazioko aldi bat finantzatuko da, hamabi hilabetez gehienez, ikertzaileen lanbide-hobekuntza eta -espezializaziorako, baldin eta titulua laguntza gauzatzeko aldiak eskuratzen bada. Edonola ere, kontratua ezingo da lau urtetik gorakoa izan.

2. oinarria.— Ezarpen-zentroak.

1.— Ezarpen-zentroak izango dira irabazi-asmorik gabeko unibertsitate edo ikerketa-erakunde publiko edo pribatuak; I+G+b-ko ahalmen eta jarduera izango dute, eta egoitza soziala izango dute deitutako modalitate bakoitzean zehaztutakoarekin bat datorren lurralderen batean. Euskal Autonomia Erkidegoan nahiz Estatuan dauden ezarpen-zentroak erakunde kontratatzaile ere izango dira. Interesduna matrikulatuta dagoen doktorego-programako unibertsitatearen autonomia-erkidego berean egon behar da ezarpen-zentroaren egoitza soziala.

2.— Laguntzaren onuradun direnek eta ezarpen-zentroa atzerrian dutenek doktoratu aurreko kontratua sinatu beharko dute Zientziaren Euskal Fundazioarekin (aurrerantzean, Ikerbasque). Fundazio horrek zentro kontratatzaile gisa jardungo du kasu horietan.

3. oinarria.— Jarduteko lerroak, modalitateak eta ezagutza-arloak.

1.— Programan, jarduteko lerro hauek biltzen dira:

- a) Laguntza berrien lerroa, zeinaren bidez finantzatuko baitira ikerketa orokorrean prestakuntzako ikertzaileen kontratuak.
- b) Laguntza-berritzeen lerroa, zeinaren bidez berritzen baitira 2024-2025 aldiak emandako laguntzak ikerketa orokorrean.
- c) Laguntza berrien lerroa, zeinaren bidez finantzatzen baitira ikerketa-arlo espezifikoetan prestakuntzako ikertzaileen kontratuak.

d) Laguntza-berritzeen lerroa; zeinaren bidez berrituko baitira 2024-2025 aldian ikerketa espezifikoa berrituko den barruan emandako laguntzak.

Lehiakide bakoitzak laguntza berrien lerro bakar batean –orokorra ala espezifikoa– aurkeztu beharko du eskabidea.

2.– Lehen deskribatutako lerroek modalitate hauek barne hartzen dituzte:

Ezarpen-zentroaren kokapena	Laguntza berrien lerroa	Laguntza berritzeen lerroa
EAE	A modalitatea	A modalitatea
Estatuko gainerako erkidegoak	B modalitatea	B modalitatea
Atzerria	I. modalitatea	I. modalitatea

3.– Agindu honen I. eranskinean daude zerrendatuta ikerketa orokorreko laguntza berriak eskatzeko aukera ematen duten ezagutza-arloak.

4.– Ikerketa-arlo espezifiko hauetarako eska daitezke laguntzak:

a) Neutronika.

- Polimeroen eta sistema makromolekularren ikerketari aplikatutako neutroien teknikak.
- Energiarako materialen ikerketari aplikatutako neutroien teknikak.
- Material funtzionalen ikerketari aplikatutako neutroien teknikak.
- Sistema biologikoen eta material bio-inspiratuen ikerketari aplikatutako neutroien teknikak.

b) Hezkuntza.

- Digitalizazioa: Metodologia eta gaitasun tekno-pedagogikoak eta, ingurune digitalaren eta ingurune presentzialaren integrazioa.
- STEAM proiektuak: gaitasun zientifiko-teknologikoak eskuratzea eta ikasleen STEM arloetara jarrera aldatzea.
- Kulturartekotasuna eta eskola-arrakasta: metodologiak eta hezkuntza-gaitasunak ingurune inklusiboetan.

Lehiakide bakoitzak arlo bakar batean aurkeztu beharko du eskabidea, eta arlo horretan aztertuko da eskabidea.

5.– Zientzia Politikako Zuzendaritzak, interesdunak hala onartu ondoren, hautatutako arloa eta lerroa aldatu ahal izango ditu, betiere, eskabidearen ezaugarriak direla-eta hala komeni bada, edo kasuan kasuko aholku-batzorde espezifikoak horrelakorik gomendatzen badu.

4. oinarria.— Baliabide ekonomikoak.

1.— Programaren zenbateko osoa, deialdi honetan, 12.491.108,00 eurokoa da, aurrekontu-ekitalditan eta jarduera-lerrotan banatuta taula honetan jasotakoaren arabera:

Lerroak	2025eko ekitaldia (euro)	2026ko ekitaldia (euro)	Guztira (euro)
Laguntza berriak (ikerketa orokorra)	483.362,00	2.274.421,00	2.757.783,00
Berritzeak (ikerketa orokorra)	1.473.684,00	7.270.241,00	8.743.925,00
Laguntza berriak (ikerketa espezifikoak)	18.241,00	88.936,00	107.177,00
Berritzeak (ikerketa espezifikoak)	39.545,00	193.508,00	233.053,00
Doktoratu ondoko orientazioa (ikerketa orokorra) *		616.711,50	616.711,50
Doktoratu ondoko orientazioa (ikerketa espezifikoak) *		32.458,50	32.458,50
Guztira	2.014.832,00	10.476.276,00	12.491.108,00

*Egindako zenbatespena 9 hilabeteko iraupenean oinarrituta

2.— Gehienez 110 laguntza berri emango dira; horietako 106 ikerketa orokorreko arloetako laguntzak izango dira, eta 3 plaza gordeko dira % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonentzat, 2 neutroi-ikerketa espezifiko arlokoak eta 2 hezkuntzako ikerketa espezifikoak. Hautatzeko moduko behar adina eskabide ez balego arlo espezifikoetan edo desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako kupoan, adjudikatu gabeko laguntzak ikerketa orokorreari gehituko zaizkie eta 31.4 oinarrian xedatutakoaren arabera adjudikatuko dira.

3.— I. modalitatekoak izango dira Ikerketa Orokorrerako ematen diren laguntzetatik gehienez 3; ikerketa-lerro espezifikoetako laguntzak edo desgaitasuna dutenentzako erreserbatuak, aldiz, dauden hiru modalitateetako edozeinetakoak izan daitezke.

4.— Gehienez 296 berrikuntza emango dira ikerketa orokorraren lerroan eta 8 ikerketa espezifikoarenean.

5.— Bigarren edo hirugarren berritzean, gehienez 19 kontratu finantzatuko dira doktoratu ondoko orientazio-aldian, Ikerketa Orokorreko lerroan, eta kontratu bat doktoratu ondoko orientazio-aldian, Ikerketa Espezifiko lerroan. Fase honetan, kontratu gehiago finantzatu ahal izango dira, egungo deialdia gauzatzean agortu gabe geratu diren aurrekontu-baliabideen arabera.

2. ATALA

ONURADUNAK, EZAUGARRIAK, ZUZENDARITZA ETA TESI-PROIEKTUA

5. oinarria.— Onuradunak.

1.— Laguntzen onuradunak doktorego-tesiaren proiektu bat gauzatzen ari diren pertsona fisikoak izango dira; eta, aldi berean, laguntzaren eskatzaile ere badira.

2.— Ezin izango dira deialdi honetako dirulaguntzen onuradun izan Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan xedatutako egoeraren batean dauden hautagaiak. Arrazoi beragatik, erakunde kontratatzaileak ere ezingo dira erakunde kolaboratzaile izan. Besteak beste, hauek dira egoera horiek:

– Ordaindu gabe izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari lotutakoak.

– Ordaindu gabe izatea dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak.

– Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen zigor penal edo administratiboren bat izatea edo horretarako desgaitzen duen legezko debeku baten pean egotea.

Betekizun horiek dirulaguntza-eskabidea aurkeztu eta ematen den dirulaguntza likidatu arte bete behar dira.

6. oinarria.– Ezaugarriak.

1.– Kontratua: diruz lagundutako jarduketek doktoratu aurreko kontratu baten ezaugarriak izango dituzte laguntzak baliatzeko aldi osoan. Kontratuaren xedea izango da proiektu espezifikiko eta erabat berrietan ikerketa-lanak egitea, lanaldi osoko dedikazio-erregimenean. Doktoratu aurreko kontratu hori duten ikertzaileen kotizazioan, 115 euroko murrizketa izango da Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko enpresa-kuotan, Doktoratu aurreko ikertzaileen estatutua onartzen duen, martxoaren 1eko, 103/2019 Errege Dekretuaren (PLIE) xedapen gehigarri bakarrean ezarritakoaren arabera.

A eta B modalitateetan, kontratua idatziz egingo da ezarpen-zentroaren (enplegatzaile gisa) eta prestakuntzako ikertzailearen artean (langile gisa).

I. modalitatean, kontratua idatziz egingo da Ikerbasqueren (enplegatzaile gisa) eta prestakuntzako ikertzailearen artean (langile gisa).

Kontratu horiek ZTBLren 21. artikuluan, PLIEren eta indarreko lan-araudian ezarritakoaren babesean egingo dira.

Enplegatzailearen eta prestakuntzako ikertzailearen arteko harremana ZTBLn, PLIEren eta Langileen Estatutuan ezarritakotik ondorioztatzen dena izango da.

2.– Iraupena: kontratuak urtebeteko iraupena izango du, laguntza hasten den egunetik aurrera, agindu honen 10. oinarrian ezarritakoaren arabera. Kontratu hori beste hiru urtez luzatu ahal izango da gehienez, laguntza berritu ondoren. Nolanahi ere, aitortzen zaien ekitaldiko deialdian ezartzen diren baldintzen arabera arautuko dira.

Doktoratu ondoko orientazio-aldiak hamabi hilabete iraungo du gehienez. Edonola ere, kontratua ezingo da guztira lau urtetik gorakoa izan.

Halaber, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideen eta haien gizarteratzearen Lege Orokorren testu bateginak (azaroaren 29ko 1/2013 LED) ezarritako baldintzak betetzen dituen pertsona batekin sinatzen denean kontratua, 5 urte gehiagoz luzatu ahal izango da.

Baldin eta kontratuei aurreko puntuetan xedatutako gehieneko luzapenak egiten bazaizkie, kontratuak indarrean egongo diren 4 urteak (edo 6 urteak, desgaitasuna duten pertsonen kasuan) jarraituak izan beharko dira. Edonola ere, berritzeak egiteko, ezinbestekoa izango da programa honetarako kreditu nahiko eta egokia egotea urtez urteko deialdietan.

Halaber, hasierako kontratua nahiz luzapen posibleak egiteko, ezinbestekoa izango da ZTBLn doktoratu aurreko kontratuei buruz ezarritakoa betetzea.

Desgaitasunen ondorioz hezkuntza-beharrian bereziak dituzten ikasleentzat, unibertsitateek laguntza eta aholkularitza emateko zerbitzu egokiak eduki behar dituzte, eta zerbitzu horiek ebaluatuko dute curriculuma egokitzearen edo ibilbide edo ikasketa alternatiboen beharra.

Egoera hauetakoren bat jazoz gero, ikertzaileen kontratuaren iraupena eten egingo da: aldi baterako ezintasuna; haurdunaldiko arriskua; amatasuna, adopzioa edo harrera; edoskitzaroko arriskua, eta aitatasuna, baita mendetasun-egoeran dauden pertsonen zaintza ere. Kasu horietan, etendako denbora berreskuratu ahal izango da interesdunak hala eskatzen badu, betiere laguntzari uko egin ez badio eta errebotatu ez bada. Eskabide hori Zientzia Politikako Zuzendaritzak baimendu beharko du, baldin eta aurrekontu-baliabideek hori ahalbidetzen badute.

3.– Zuzkidura: laguntza ikertzaileen ordainsari gordina eta zentro enplegatzaileak Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko enpresa-kuota ordaintzera bideratuko da.

Hauek izango dira 2025-2026 ikasturterako zuzkidurak modalitate bakoitzean:

Laguntza berriak		1. berritzea		2. berritzea		3. berritzea		Doktoratu ondoko orientazio-aldia	
Enplegatzailea	Enplegatua*	Enplegatzailea	Enplegatua*	Enplegatzailea	Enplegatua*	Enplegatzailea	Enplegatua*	Enplegatzailea	Enplegatua*
25.721,00	19.380,40	25.721,00	19.380,40	26.807,00	20.467,00	32.734,00	25.582,00	43.278,00	33.489,00

(*) nominaren zenbateko gordina, langile bakoitzak jasan behar dituen atxikipeak eta kotizazioak kendu baino lehen

Enplegatuak jaso behar dituen zenbatekoak hamabi edo hamalau hilekotan banatuko dira, zentro enplegatzailearen araudiak ezartzen duenaren arabera.

Erakunde kontratatzailearekin izenpetutako doktoratu aurreko kontratuak jasoko ditu kopuru horiek gutxieneko ordainsari gisa, hargatik eragotzi gabe horiek erakunde kontratatzailearen kontura osatu ahal izatea, hala behar izanez gero PLIEren 7. artikuluan adierazitakoa betetzeko; hala bada, gehikuntza horri dagokion enpresa-kuotaren zati proportzionala ordaindu beharko du erakunde kontratatzaileak.

4.– Asegurua: hargatik eragotzi gabe onuradunei dagokien Gizarte Segurantzaren estaldura, laguntzek erantzukizun zibilaren eta istripuen aseguru bat barne hartuko dute, zeina EAEko Administrazio Orokorrak kudeatuko baitu. Horrez gain, I. modalitateko ikertzaileak bidaiako asistentzia-aseguruaren onuradun izango dira. Aseguru horren estaldurak aldaezinak dira. Bidaiako laguntza-asegurua interesdunaren ezkontideari eta 25 urtetik beherako seme-alabei ere aplikatzen da, baldin eta interesdunak hala eskatzen badu eta interesdunarekin batera egongo badira atzerrian egonaldia osoan edo aldi luzeetan. Luzapentzat hartuko da onuradunarekin bizitzen egindako aldia, ez bada bisitaldi edo oporraldi batengatik, hilabetetik gorakoa. Aseguru hori, era berean, antolamendu juridikoak onartzen dituen edozein frogagiriren bitartez egiaztatutako izaerazko bikoteentzat ere baliagarria izango da.

5.– Bidaia-gastuak eta bisa. I. modalitatearen onuradunak diren ikertzaileentzat osagarri bat ezarriko da lekualdatutako zentrora joan-etorriko bidaia bat finantzatzeko urtean. Taula hau kontuan hartuta ezarriko da bidaia horren zenbatekoa:

Abiapuntu eta helmugaren arteko distantzia	1.000 km-raino	1.001–2.500 km	2.501–11.000 km	11.000 km baino gehiago
Bidaia-gastuetarako laguntza	300 euro	600 euro	1.000 euro	1.200 euro

Agindu honen ondorioetarako, eskatzailea Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta dagoen probintziako hiriburua hartuko da jatorri-hiritzat, eta lerro zuzeneko distantzia <https://es.distance.to/tresna> erabiliz neurtuko da.

Halaber, joan-etorriak egiteko bisa izapidetu behar izanez gero, 200 euroko diru-osagarri bat emango da.

6.— Matrikula-gastuak. Gehigarri bat ezarriko da doktorego-ikasketetan matrikula formalizatzearen ondoriozko gastuak estaltzeko. Gehigarri horrek ezin izango ditu gainditu Euskal Herriko Unibertsitateko goi-mailako hezkuntza-zerbitzu publikoen prezioak finkatzen dituen Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren aginduan unibertsitateko ikasketa-zerbitzuengatik ezarritako prezio publikoen gehieneko zenbatekoak. Hauek izango dira finantzatu beharreko kontzeptuak: dedikazio osoko doktoregaiaren prestakuntza eta jarraipena, doktorego-programetako tutoretza-matrikula eta matrikula-gastu finkoak, istripu-aseguru oinarritzkoa eta eskola-asegurua barne. Gehienez 273,17 euro ordainduko dira matrikulagatik.

7.— Kalte-ordaina. Osagarri bat finkatu da jardunari uztearen ondoriozko kalte-ordaina estaltzeko, kontratua amaitzean indarrean den araudiaren arabera, baldin eta onuraduna laguntzaren laugarren urtean badago.

Lan egindako urte bakoitzeko hamabi eguni dagokien kopurua estaliko du gehienez osagarri horrek, programaren laugarren urtea amaitu arte. Gehienez 3.364 euro ordainduko dira kontratu bakoitzeko kalte-ordain gisa, beti programako laugarren urteko azkenengo ordainketan.

8.— Doktoratu ondoko orientazio-aldia. Doktoratu ondoko orientazio-aldia betetzeko gehigarri bat ezarri da. Gutxienez 6 hilabetez finantzatuko da, eta gehienez ere 12 hilabetez luzatu ahal izango da, deialdi honetan horretarako dagoen zuzkiduraren arabera.

9.— Ordaintzeko modua.

a) Ordainsaria. Ordainsaria zatika ordainduko zaie erakunde kontratatzaileei: laguntzaren bi hilekori dagokion ordainsaria (lehenengo ordainketa) ebazpen bidez esleitutako laguntza onartzean ordainduko da, edo, hala badagokio, aginduaren 11.1 oinarrian adierazitako epea igaro eta gero, onuradunak laguntzari espresuki uko egin ez badio. Gainerakoa, hiru alditan ordainduko da: bat 2026ko martxoan (lau hileko), beste bat 2026ko maiatzean (hiru hileko), eta hirugarren bat 2026ko urrian (hiru hileko).

Bigarren ordainketa egiteko, kontratuaren kopia aurkeztu beharko dute onuradunek, edo, hala badagokio, haren luzapenak, informatika-aplikazioaren bidez, agindu honen 9. oinarriko 4. puntuan xedatzen den bezala.

Prestakuntzako ikertzaileei egindako ordainketengatik, ezarpen-zentroek eta lkerbasquek dagozkien konturako atxikipenak eta diru-sarrerak egingo dituzte.

b) 2025-2026 ikasturteko matrikula. Matrikularen zenbatekoa lehenengo ordainketan ordainduko zaio erakunde kontratatzaileari. Erakunde kontratatzaileak ordainketa bakar batean ordainduko dio onuradunari zenbateko hori, hirugarren hileroko ordainsarian.

c) Bidaiak eta bisa. Bidaia-gastuetatik eta bisatik eratorritako gastuak erakunde kontratatzaileari ordainduko zaizkio bigarren ordainketan. Erakunde kontratatzaileak ordainketa bakar batean ordainduko dizkio onuradunari zenbateko horiek, hirugarren hileroko ordainsarian.

d) Kalte-ordaina. Jarduera uzteagatik kalte-ordainari dagokion zenbatekoa erakunde kontratatzaileari ordainduko zaio, programako laugarren urteko azkenengo ordainketan.

Dena dela, ez da ordainketarik egingo baldin eta onuradunak ez baditu ordaindu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta, orobat, itzulketa-ebazpen bat dela medio, zorduna bada.

7. oinarria.– Doktorego-tesien zuzendarien betekizunak.

1.– Laguntzaren onuraduna atxikita dagoen unibertsitatearekin edo ikerketa-zentroarekin kontratu- eta lan-lotura iraunkorra izan eta zerbitzu aktiboan dagoen doktore batek zuzendu ahal izango du doktorego-tesiaren proiektua.

Ondorio horietarako, iraunkortzat joko da Ikerbasquek «Research Professor» edo o «Research Associate» kategorietan kontratatutako ikertzaileen eta haiek atxikita dauden erakundeen arteko lotura.

Ikerketa espezifikoko laguntzen lerroan, hala neutronikan nola hezkuntzan, eta B eta I. modalitateetan, nahitaezko betekizuna izango da doktorego-tesian zuzendarikidea den Zientzia eta Teknologiarako Euskal Sistemako ikertzaile batek zuzentzea.

Gainera, unibertsitateen kasuan, tesiaren zuzendariak (edo, bestela, tesiaren zuzendarikideak) eskatzailea atxikita dagoen departamentuko kide izan behar du.

2.– Tesiaren zuzendariak kontratu-lotura ez-iraunkorra baldin badauka laguntzaren onuraduna atxikita dagoen unibertsitatearekin edo ikerketa-zentroarekin, eskatutako proiektuak beste edo gehiago iraun beharko du kontratu horrek. Proiektuaren zuzendariak ez badu betekizun hori betetzen, nahitaezkoa izango da zuzendarikide baten lankidetza izatea, laguntzaren onuraduna atxikita dagoen unibertsitatearekin edo ikerketa-zentroarekin laguntzaren aldi osorako kontratu bidezko harremana duena.

3.– Eskabide bakoitzean, tesi-proiektuaren bi zuzendari agertuko dira gehienez, zuzendari eta zuzendarikide modura; eskubide eta betebeharrak berak izango dituzte biek.

Zuzendarikide bat baldin badago, hark ere sinatu beharko ditu agiri guztiak, alegia, deialdi honen arabera proiektuaren zuzendariak sinatu behar dituen agiri guztiak.

4.– Doktorego-tesiaren proiektu baten zuzendariak edo zuzendarikideak ezingo du eskabide batean baino gehiagotan azaldu deialdi honetako modalitateetan, ez zuzendari gisa ez zuzendarikide gisa.

5.– Doktorego-tesiaren proiektu baten zuzendaritza edo zuzendarikidetza bere gain hartzen duenak, eskatzaileak hautatutako doktorego-programak ezarritako betekizunak ere bete beharko ditu doktorego-tesien zuzendaritza eta zuzendarikidetzari dagokionez.

6.– Tesiaren zuzendariek eskabidea aurkezten den unean bete beharko dituzte oinarri honetan xedatutako betekizunak, eta berauek betetzen jarraitu beharko dute laguntza amaitu arte.

3. ATALA

ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

8. oinarria.– Ikertzaile onuradunen eskubideak.

1.– Ikerketa-proiektua gauzatzeko behar duten lankidetza eta laguntza jasotzea ezarpen-zentrotik, zentro horrek ahal duen neurrian.

2.– Dagozkion departamentuetan eta institutueta integratuta egotea, eta horietan parte hartzea, bere ezarpen-zentroko estatutuak adierazten duen moduan.

3.– Ezarpen-zentroko estatutuak ematen dizkion opor-erregimena, lizentziak eta baimenak baliatzea.

4.– Dagokion laguntza ekonomikoa jasotzea deialdi honetan adierazitako moduan.

5.– Atzerrian ikerketa-egonaldi bat egiteko laguntza ekonomikoa eskatzea, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren urteroko aginduan aurreikusitako baldintzetan, zeinaren bidez egiten baita Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailak finantzatutako ikertzaileen prestakuntzarako doktoratu aurreko programako laguntzen ezarpen-zentroez bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntza-deialdia.

6.– Norberaren ekarpenarekin bat etorriz, ikerketan egindako prestakuntza-jardueratik eratorritako jabetza intelektualaren eskubideak baliatzea, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Jabetza Intelektualaren Legearen testu bateginak ezarritakoari jarraikiz. Eskubide horiek ez dute mendekotasunik izango egindako ikerketak eragin ditzakeen beste eskubide batzuekiko, eta horiekin osagarri eta metagarri izango dira. Horrek ez du eraginik izango lan kolektibotik eratorritako baldintzatzaileetan, prestakuntzako ikertzailea ikerketa-proiektu kolektibo batean parte hartzen ari denean edo horri lotuta dagoenean.

7.– Industria-jabetzaren gaineko eskubideei dagokienez, deialdi bakoitzak xedatutakoa hartuko da kontuan, Patenteei buruzko uztailaren 14ko 24/2015 Legearen esparruan. Horrez gain, urtarilaren 18ko 55/2002 Errege Dekretuak –ikerkuntza-erakunde publikoetan egindako asmaketak ustiatzeari eta lagatzeari buruzkoak– xedatutakoa ere hartuko da kontuan, hala dagokionean. Aipatutako eskubide horiek ez dute, inola ere, soldata-izaera izango.

8.– ZTBLk 14. artikuluan ikertzaileentzat onartutako guztiak.

9.– Ezarpen-zentroak aitortutakoak diren eta deialdi honetan ezarritakoarekin bateraezinak ez diren eskubide guztiak.

10.– PLIEk aitortzen dizkien beste guztiak.

9. oinarria.– Ikertzaile onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan iragarritako laguntzen onuradunek Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14, 27 eta 42. artikuluetan araututako betebeharren araubidea bete beharko dute, eta, zehazki, honako hauek bete beharko dituzte:

1.– Jarraian adierazten diren egunetan hastea ezarpen-zentroan:

a) Laguntza berri baten onuraduna, kontratua formalizatu, eta 2026ko urtarrilean hasiko da lanean bere ezarpen-zentroan. 2026ko otsailaren 1a baino lehen hasi beharko du aldiak, bai ondorio ekonomikoetarako, bai denbora zenbatzeko, baita Gizarte Segurantzari alta emateko ere.

Onuraduna 2026ko urtarrilaren 31 baino geroago hasten bada lanean, emandako laguntza baliogabetu egingo da Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordearen ebazpen baten bidez.

b) Laguntza berritza lortzen duten ikertzaileek prestakuntza-jarduerarekin jarraitu beharko dute, etenaldirik egin gabe, eta dagokien ezarpen-zentroaren lan-egutegia bete beharko dute.

c) Onuradun berriak eta berrituen onuradunak ezarpen-zentroan sartu direla egiaztatu beharko da, zentroko atxikipen-departamentuaren zuzendariak eta ikerketa-proiektuaren zuzendariak sinatutako agiri baten bidez. Agiriak atxikipenerako aurreikusitako data berbera izan beharko du. Idazki hori Zientzia Politikako Zuzendaritzara bidaliko da, 2026ko otsailaren 14a baino lehen, onuradunak laguntza-eskabidea egiteko erabili duen informatika-aplikazioaren bidez.

2.– Ikerketa-jarduera dedikazio eskusiboko erregimenean gauzatu beharko da, agindu hone-tako 13. oinarrian ezarritakoa bazter utzi gabe.

3.– Atzerrian 4 eta 6 hilabete arteko egonaldi jarraitua egitea ezarpen-zentroa ez den beste batean. Egonaldi hori doktoratu aurreko laguntzaren hirugarren berritzea ebatzi aurretik hasita izan beharko da, eta modu jarraituan egin beharko da. Betebehar hori ez betetzeak laguntza eko-nomikoa ez berritzea ekarriko du azken urtean.

4.– Ezarpen-zentroarekin edo Ikerbasquerekin sinatutako kontratuaren benetako kopia igortzea, berria edo luzapena izan, informatika-aplikazioaren bidez, Zientzia Politikako Zuzendaritzara, kon-tratua sinatzen den egunetik hasita 21 egun naturaleko epean beranduenek.

5.– Zientzia Politikako Zuzendaritzara igortzea, informatika-aplikazioaren bidez eta 2026ko mar-txoaren 15a baino lehen, 2025-2026 ikasturteko doktoregoko matrikularen zenbatekoa ordaindu izanaren frogagiria. Ez da beharrezkoa izango matrikula aplikazio zentroan egin baldin bada.

6.– Zientzia Politikako Zuzendaritzari jakinaraztea, informatika-aplikazioaren bidez, iker-keta-premiekin eragindako irteerak, bi aste baino denbora gutxiagorako direnean eta Espainiara egiten direnean. Ezarpen-zentroaren ikerketa-premiengatik aldi baterako irteerak Espainiatik kan-pora egin behar badira edo bi aste baino gehiago iraungo badute, baimena eskatu beharko zaio Zientzia Politikako Zuzendaritzari, eta hark baimendu beharko ditu.

Baimena eskatzeko, azalpen-idazki bat aurkeztu beharko da, informatika-aplikazioaren bidez, gutxienez, aurreikusitako irteera-data baino hamar egun lehenago, eta departamentuko zuzenda-riak, proiektuko zuzendariak eta prestakuntzako ikertzaileak sinatu beharko dute.

Baldin eta laguntzaren onuraduna aldi berean bada agindu honen 8.5 oinarrian zerrendatu-tako aldi baterako egonaldi baten onuraduna eta egonaldi horrek deialdiaren emate-ebazpenean ezarritako epea gainditzen badu, baimena eskatu beharko du aldi baterako irteera bat egiteko gehituko zaien epean atzerrian.

7.– Laguntza ematea ekarri zuten hasierako baldintzetan izandako aldaketa oro (proiektua, proiektuaren zuzendaritza, ezarpen-zentroa, eta abar) jakinaraztea bai Zientzia Politikako Zuzen-daritzari eta bai ezarpen-zentroari, informatika-aplikazioaren bidez kasu honetan.

Baldintzetan aldaketaren bat egiteko Zientzia Politikako Zuzendaritzaren baimena beharko da. Aldaketa-eskabidea idazki arrazoitu bidez egingo da, eskatzaileak sinatu beharko du, eta aldaketa horretan zerikusia duten guztien oniritzia beharko da.

Dena dela, baimentzen diren aldaketek bermatu beharko dute laguntza ematea eta orduko kalifikazioak lortzea eragin zuen kalitatearen antzekoa izango dela kalitatea, eta ez da aldaketarik egongo emandako laguntza ekonomikoaren zenbatekoan.

8.– Laguntzari edo doktoratu ondoko orientazio-aldiari uko egiten zaiola jakinaraztea, bai ezarpen-zentroari eta bai Zientzia Politikako Zuzendaritzari, kasu honetan informatika-aplikazioa-ren bidez, 12. oinarrian xedatutako termino eta baldintzei jarraikiz.

9.– Ezarpen-zentroari eta Zientzia Politikako Zuzendaritzari –kasu honetan, aplikazio informatikoaren bidez– hilabete lehenago jakinaraztea tesia irakurtzeko aurreikusitako data bai eta doktoratu ondoko orientazio-aldiari atxikitzeko asmoa ere.

10.– Doktore-titulua lortu izana jakinaraztea, bai Zientzia Politikako Zuzendaritzari eta bai ezarpen-zentroari, kasu honetan informatika-aplikazioaren bidez, titulua lortzen den egunetik aurrera gehienez 10 egun naturaleko epean.

Doktore-titulua laguntza betearazi bitartean eskuratzen bada, Zientzia Politikako Zuzendaritzari aurkeztu beharko zaio, informatika-aplikazioaren bidez, doktoratu aurreko kontratuaren eranskina, doktoratu ondoko orientazio-aldira atxikitzen bada, formalizatzen den egunetik gehienez 10 egun naturaleko epean. Halaber, doktorego-tesia defentsa- eta onarpen-egintzaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, bai eta lan- eta jarduera-programa bat ere doktoratu ondoko orientazio-aldirako; azken horretan, aldi horretarako tutorea zein den jaso beharko da. Programa hori laguntzaren informatika-aplikazioan eskuragarri dagoen formatu normalizatuan aurkeztu beharko da.

11.– Laguntza baliatzeko epe osoa amaitu eta hurrengo hilabetean, hala badagokio doktoratu ondoko orientazio-aldia barne, egindako ikerketa-jarduera guztiei eta haien emaitzei buruzko amaierako txostena aurkeztea (10 orrialde, gehienez) Zientzia Politikako Zuzendaritzari, informatika-aplikazioaren bidez, informatika-aplikazioan eskuragarri dagoen formatuan. Txostenak proiektuaren zuzendariaren bermea izan beharko du. Halaber, txosten hori aurkeztu beharko dute doktore-titulua eskuratu dutelako laguntzaren onuradun izateari utzi diotenek eta aurreikusitako epea igaro baino lehen laguntzari uko egin diotenek.

12.– Laguntza baliatzen duen bitartean egiten diren argitalpen guztietan eta doktorego-tesian azaltzea Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailak doktore ez diren iker-tzaileak prestatzeko duen doktoratu aurreko programaren onuradun dela.

13.– Aprobetxamenduz gauzatzea ikerketa-proiektuko lan-planean eta doktorego-programan aurreikusitako jarduerak.

14.– Ezarpen-zentroaren funtzionamenduko, segurtasuneko eta lan-osasuneko arauak onartzea, ezagutzea eta betetzea.

15.– Erakunde batzuentzat diharduela kontuan hartuta, ikerketa-jarduera gauzatzeko orduan erakunde horien izenak erabiltzea, barne-araudien eta erakundeek sinatutako akordio eta hitzarmenen arabera.

16.– Zientzia hedatzeko kanpainetan parte hartzea, ezarpen-zentroko komunikazio-politikaren esparruan.

17.– Zientzia-alorreko prestakuntza eta esperientzia-trukea sustatzeko politikaren esparruan Zientzia Politikako Zuzendaritzak antolatutako jardueretan parte hartzea.

18.– Dirulaguntza jasotako jardueren xedea edo izaera asko aldatzen duen edozein gorabeheraren berri ematea; era berean, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailari laguntzea jarduera horien egiaztapen-, ikuskapen-, jarraipen- eta kontrol-prozeduretan.

19.– Laguntzen zertarakoa fiskalizatzeko dituzten zereginak betez, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dieten informazio oro ematea.

Edonola ere, prestakuntza-aldiko ikertzailearen betebeharren mende daude zuzkidura ekonomikoak jasotzea eta laguntza berritzea. Betebehar horiek ez badira egiten, laguntza ezeztatzeko

dagokion prozedura bideratu ahal izango da, baita, hala badagokio, laguntza itzultzeko prozedura ere.

10. oinarria.— Ezarpen-zentroaren eta erakunde kontratatzaileen betebeharrak.

1.— Ezarpen-zentroak betebeharrak hauek izango ditu, kontratu-aldian ikertzailearekiko kontratu-harremanetik sortzen direnez gainera:

a) Laguntzaren onuradun den ikertzaileari lan-kontratua egitea ZTBLn helburu horretarako ezarritakoaren arabera, betiere indarrean dagoen lan-arloko legeriari jarraikiz, eta agindu honetan ezarritako iraupen, ordainsari eta gainerako ezaugarriak kontuan hartuta.

b) Kontratuari eranskin bat egitea doktoratu ondoko orientazio-aldia garatzeko laguntza amaitu aurretik doktore-titulua lortzen duten kontratudunekin; aldi horrek 12 hilabete iraungo du gehienez, doktore-titulua eskuratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita. Ondore horietarako, kontuan hartu da doktore-titulua doktorego-tesiaren defentsa- eta onarpen-egintzaren datan lortu dela.

c) Zientzia Politikako Zuzendaritzari jakinaraztea laguntza emateko hasierako egoerari uko egin zaiola, egoera hori eten egin dela, aldatu egin dela, eta gertatzen den bateraezintasun-arrazoi oro, baita laguntzaren xedea normaltasunez betetzea eragotz lezakeen gainerako gorabeherak ere, 21 egun naturaleko epean gehienez, gertatzen diren egunetik aurrera.

d) Onuradunei behar duten laguntza ematea, eta beren jarduera ongi gauzatzeko behar dituzten bitartekoak, tresnak edo ekipoa erabiltzeko aukera ematea.

e) Programa behar bezala garatzen dela zaintzea; onuradunari ezin zaio eskatu bere ikerketaren garapenarekin lotuta ez dagoen beste jarduerarik egitea.

f) Prestakuntzako ikertzaileari aukera ematea, ikertzen ari den departamentuetan, institutuetan eta erakunde publiko edo pribatuetan integratzeko.

g) Laguntza-programa honen barruan ezarpen-zentroaren eta ikertzailearen artean egindako kontratuek adierazi beharko dute Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko finantza-laguntza dutela Doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko Programaren bitartez.

h) Kontrol Ekonomikorako Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutako informazio guztia ematea, laguntzen xedearen fiskalizazio-eginkizunak betetze aldera.

i) Ezarpen-zentroak 2027ko lehen hiruhilekoan justifikatu beharko du zertan erabili dituen agindu honen xede diren laguntzak garatzearen ondorioz jasotako funtsak. Helburua da erregularizatzea zentro horiei ikertzailearen ordainsari gordinetarako ordaindutako zenbatekoen eta, agindu honetan jasotako egoera guztiak aplikatuta, azkenean ematen direnen arteko aldea. Era berean, bidaia-gastuetan egindako ordainketak justifikatu beharko dira.

Horretarako, ezarpen-zentroak ziurtagiri bat bidali beharko du Zientzia Politikako Zuzendaritzara, Erregistro elektronikoko orokorraren laguntzailearen bidez –Izapidetze-formularioa (euskadi.eus)–. Ziurtagiri horretan, honako hauek jasoko dira: laguntzaren onuradun bakoitzari emandako urteko soldata gordina, Gizarte Segurantzari egindako ekarpenak, kontratua amaitzean kontratu bakoitzari dagokion kalte-ordainari dagozkion zenbatekoak eta doktorego-programako matrikularen kostua. Ezarpen-zentroak jasotako zenbatekoak benetan aplikatutakoak baino handiagoak badira, aldea likidatuko da, Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordearen ebazpen baten bidez.

Hala ere, onuradunak bere kontratua amaitu baino lehenago amaitzen badu laguntzaren aldia, une horretan bertan justifikatu ahalko du ezarpen-zentroak, aurreko paragrafoan aipatzen den moduan.

j) Diruz lagundutako jardueraren xedea edo izaera funtsean aldatzen duen gorabehera ororen berri ematea, baita Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailarekin lankidetzan aritzea ere, jarduera horien egiaztapen-, ikuskapen-, jarraipen- eta kontrol-prozeduretan.

2.– I. modalitateko onuradunen ezarpen-zentroek 1.c, 1.d eta 1.e apartatuetan adierazitakoa soilik hartuko dute kontuan.

3.– Entitate kontratatzailea, erakunde laguntzaile gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren laguntzen eta dirulaguntzen araubideari buruzko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 12. artikuluan xedatutakoaren mende egongo da.

4. ATALA

LAGUNTZA ONARTZEA, UKO EGITEA ETA BATERAEZINTASUNAK

11. oinarria.– Laguntza onartzea.

1.– Agindu honetan araututako doktoratu aurreko laguntza berriaren onuradunak 10 egun balioduneko epea izango du laguntzari beren-beregi uko egiteko, emate-ebazpena <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/> egoitza elektronikoaren iragarki-taulan jakinarazten dene-tik aurrera. Uko egiten bada, laguntza baliatzen hasi baino lehen izango ditu ondorioak uko-egite horrek. Uko-egitea informatika-aplikazioaren bidez egingo da, eta Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordearen ebazpen bidez onartuko da. Puntu honetan ezarritako moduan eta epean aurkezten bada uko-egitea, 32.7 oinarrian ezarritakoaren arabera adjudikatuko da berriro hutsik dagoen laguntza. Horrelakorik egin ezean, laguntza onartutzat hartuko da.

2.– Prestakuntzan ari diren ikertzaileek laguntza onartzen badute, ulertuko da 8. eta 9. oinarrietan jasotako eskubideak eta betebeharrak aitortzen dituztela.

12. oinarria.– Laguntzari uko egitea.

1.– Kontratua formalizatuta, eta laguntza baliatzeko aldiaren barruan, onuradunak laguntzari uko egiteko aukera izango du, horretarako arrazoiak adierazita. Uko-egitea informatika-aplikazioaren bidez jakinarazi beharko da, eta, horretarako, Ikerketako zuzendariari idatzi bat helarazi beharko zaio. Idatzi hori ikertzaileak berak eta ezarpen-zentroko legezko ordezkariak sinatu beharko dute, eta bertan adierazita egon beharko dira laguntzari uko egiteko arrazoiak eta uko-egite horrek zein egunetatik aurrera izango dituen ondorioak. Ondorioak hasteko eguntzat hartuko da gertatu den eguna. Uko-egitearen ondorioak hasteko eguna baino 10 egun baliodun lehenago egingo da jakinarazpen hori, beranduenez. Laguntzari uko egiten dion onuradunaren ezarpen-zentroa EHU bada, justifikazio-idatzia Ikerketako errektoreordeak sinatu beharko du.

2.– Onuradunak alegatutako arrazoiak justifikazio nahikotzat jotzen badira, Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordearen ebazpen baten bidez onartuko da uko-egitea.

3.– Ikertzaileak uko egiten badu, zentro enplegatzaileak itzuli egin beharko ditu kontratua finantzatzeko erabili gabeko zenbatekoak. Uko-egitearen ondorio ekonomikoak uko-egite hori gauzatzen den egun berean hasiko dira, hargatik eragotzi gabe bidegabeko ordainketak gauzatu badira egin beharko diren itzultzeak. Laguntza berrien kasuan, uko egin arte jasotako diru guztia

itzuli egin beharko du onuradunak, baldin eta laguntza baliatzeko lehen hiruhilekoan uko egiten bada.

13. oinarria.— Bateriaezintasunen araubidea.

1.— Agindu honetako laguntzak bateraezinak dira, oro har, funts publikoekin edo pribatuekin finantzatutako bestelako laguntzekin —xede bera baldin badu—, ez eta soldatak jasotzearekin ere.

2.— Zientzia Politikako Zuzendaritzak baimendu ahal izango du laguntza bateragarria izan dadin prestakuntza-helburuko irakaskuntza-zereginetan lankidetzan aritzearekin, urtean 60 orduz gehiezez; 180 ordukoa izango da laguntzen aldi osorako gehieneko muga, inola ere indargabetu gabe laguntzaren ikerketa-helburua.

Eskatzailea doktorego-programa egiteko matrikulatuta dagoen gradu-irakaskuntzan eta unibertsitatean egingo da lankidetzan hori. Gainera, ez du inola ere murriztuko lankidetzan esleitzen duen sailaren irakaskuntza-zama, ezta ordezkapenik egingo irakasgaiaren ardura duen irakasleen irakaskuntzan, eta irakasgaiaren ardura duen irakasleekin batera egingo da, talde txikitan (mintegietan, laborategi edo ordenagailuko praktketan, edo antzekoetan). Prestakuntzako ikertzailea ezin da inolaz ere aipatutako ikasgaiaren arduraduna edo koordinatzailea izan. Halaber, ez da lan-kontraturik egingo.

Lankidetzaren baimen-eskabidea egiteko erabili den informatika-aplikazio beraren bidez eskatuko da lankidetzan baimena. Horretarako, aplikazio horretan dagoen txantiloia bete beharko da; irakaskuntzan laguntzen hasteko aurreikusitako eguna baino hamabost egun lehenago gutxienez eskatu beharko da baimen hori, eta, ikerketa-arloan eskumena duen errektoreordearen onarpena izateaz gain, atxikipen-saileko zuzendariak, doktorego-tesiaren proiektuaren zuzendariak eta zuzendarikideak, hala badagokio, eta ikertzaileak sinatu beharko dute eskabidea.

3.— Agindu honen babesean jasotako laguntzak bateraezinak dira bestelako ikasketa arautuekin, izan urrutiko modalitatean, izan aurrez aurrekoan.

4.— Zientzia Politikako Zuzendaritzak baimena eman dezake hizkuntzen ikasketak egiteko, baldin eta ezarpen-zentroko lanaldi normalizatutik kanpoko ordutegien izaera eta garapenak ez badakar onuradunaren ikerketa-jarduera garatzeko inolako kalterik.

Ikasketak egiteko baimen-eskabidea informatika-aplikazioaren bidez egingo da eta doktorego-tesiaren proiektuko zuzendariak eta zuzendarikideak eta ikertzaileak sinatu beharko dute.

5.— Zientzia Politikako Zuzendaritzak beste irakaskuntza-zeregin batzuetatik datozen hartzekoak baimendu ahal izango ditu onuradunak berak gauzatzen duen ikerketarekin zuzenean lotutako irakaskuntza-zereginengatik (ikastaroak, hitzaldiak edo txostenak) edo ikerketa-lanengatik (liburuak, artikulak edo erakusketak), baldin eta horiek guztiak aldizkakoak eta ezohikoak badira. Ordainsari horiek ezin izango dute laguntzaren urteko zenbateko gordinaren % 30 gainditu. Ez da baimenduko adierazitako parametroekin bat ez datorren beste jarduerarik.

Baimen-eskabidea informatika-aplikazioaren bidez egingo da, eta lana hasteko aurreikusitako eguna baino hamabost egun lehenago, gutxienez. Baimen hori atxikipen-departamentuko zuzendariak, doktorego-tesiaren proiektuaren zuzendariak eta zuzendarikideak, hala badagokio, eta ikertzaileak berak sinatu beharko dute.

6.— Agindu honen babesean jasotako laguntzak bateraezinak dira ZTBLe 21. artikuluan xedatutakoaren babesean egindako doktoratu aurreko kontratu bat sinatu izanarekin, agindu honen ebazpena baino lehen.

14. oinarria.— Laguntzaren baldintzak aldatzea.

Laguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, edo, hala dagokionean, administrazio honek edo beste administrazio publiko batzuek emandako beste laguntza batzuk aldi berean lortzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, betiere agindu honetan ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badira. Ondorio horietarako, Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordeak dagokion likidazio-ebazpena emango du, zeinetan emandako zenbatekoak berriz doituko baitira, eta laguntza horiek emateko ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuko. Hartzaileek, beraz, sobera jasotako zenbatekoak itzuli beharko dituzte. Baldintzak aldatzeak emandako dirulaguntza osoa edo haren zati bat itzuli beharra baldin badakar, 18. oinarrian araututako itzultze-espedientea hasiko da.

15. oinarria.— Jarraipena.

Zientzia Politikako Zuzendaritzak egin beharko du prestakuntzako ikertzaileek gauzatutako lanaren jarraipen zientifikoa eta teknologikoa. Horretarako, prozedura egokiak ezarriko ditu, eta egoki irizten dituen organo, batzorde edo adituak izendatu ahal izango ditu, laguntzaren aplikazioaren beharrezko jarraipen- eta egiaztapen-jarduerak gauzatzeko, eta, agindu honetan kasu bakoitzerako berariaz ezartzen den informazioaz gain beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarria aurkez dadila eskatzeko.

16. oinarria.— Ikuskapena eta kontrola.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailak behar diren ikuskapen- eta kontrol-lanak egin ahal izango ditu agindu honetako betekizunak eta baldintzak betetzen direla bermatzeko, hargatik eragotzi gabe Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari esleitutako egitekoak.

17. oinarria.— Ez-betetzea.

Onuradunak eta/edo ezarpen-zentroak edo erakunde kontratatzaileak Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan jasotako kasuetako batean badaude, edo agindu honetan eta bete beharreko gainerako arauetan aipatutako baldintzak edo betebeharrak betetzen ez badituzte, edo dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetako edo eskakizunetako bat edo batzuk betetzen ez dituztela egiaztatzen bada —Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan eta dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritakoaren arabera—, laguntza jasotzeko eskubidea galtzeko eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzultzeko prozedurari ekingo zaio, dirulaguntzen arloan aplikatzekoak diren berandutze-interesekin batera (Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36.1 artikuluan jasotakoa aplikatuz).

18. oinarria.— Laguntza jasotzeko eskubidea galdu dela deklaratzeko eta, hala badagokio, laguntza itzultzeko prozedura.

Agindu honetan xedatutakoa betetzen ez den kasuetan, hau izango da prozedura:

1.— Prozedura abiatzeko eta jakinarazteko ardura Ikerketako zuzendariarena izango da.

2.— Prozedura hasteko idatzian, prozedura bera hastearen arrazoiak jasoko dira, eta 10 eguneko epea emango da onuradunak egoki iritzitako alegazioak aurkezteko.

3.— Alegazioak jaso ondoren, edo, horretarako epean, alegaziorik jaso ez bada, amaiera emango zaio prozedurari, Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordearen ebazpen baten bidez.

Hamabi hilabetekoa izango da prozedura ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea.

Ebazpenak ulertzen badu Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen Legearen 36.1 artikuluan jasotako ez-betetzeak gertatu direla, laguntza jasotzeko eskubidea galdu dela adieraziko du, eta, hala badagokio, EAEko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar zaizkiola behar diren kopuruak eta dirulaguntzen arloko berandutze-interes aplikagarriak Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen Legearen 40. artikulua araberaren arabera.

19. oinarria.— Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa.

Eskatzaileen datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko: Laguntzak eta dirulaguntzak (ikerketa sustatzekoak). Informazio hau barne hartuko du:

Arduraduna: Zientzia politikako zuzendaritza, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila.

Helburua: Ikerketa finantzatzea eta bultzatzea.

Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzean egin behar den eginkizun bat betetzeko.

– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

– 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duena.

– 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.

Hartzaileak:

– Autonomia-erkidegoko beste organo batzuk.

– Ekonomia eta Ogasun Saila.

– Patente eta Marken Espainiako Bulegoa.

Eskubideak: Eskatzaileak eskubidea du datuak eskura izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: Datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta xehea gure web-orrian dago: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/054300-cap2-eu.shtml>

Araudia:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?lang=eu&id=BOE-A-2018-16673>).

II. KAPITULUA

LAGUNTZEN IZAPIDEAK, EBAZPENA ETA ARGITALPENA

20. oinarria.— Organo kudeatzailea.

Zientzia Politikako Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzea.

21. oinarria.— Eskabideak formalizatzea eta aurkezteko epeak.

1.— Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa telematikoki eskuragarri egongo den inprimakia-ren bitartez baizik ezingo da egin eskabidea. Zehazki, helbide honetan aurki daiteke: https://www.euskadi.eus/zerbitzu_elkartzea/2025/predoc/web01-tramite/eu/

Helbide horretatik, ikerketako informatika-aplikazioan sartuko da izangaia, eta bertan alta hartu beharko du erabiltzaile moduan, eta aplikazioan zehaztutako jarraibideak bete. Eskatzailearen identitatea egiaztatuko da, pertsona horren esanbidezko baimenarekin, datuak egiaztatzeko zerbitzuaren bitartez. Zerbitzu hori Administrazio Elektronikoa buruzko 21/2012 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian jasota dago.

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa bide elektronikoz baino ez da aurkeztuko, urtarilaren 11ko 4/2022 Dekretuaren arabera (Ikerketarako laguntza eta sariak eskatzeko eskabideetan eta gainerako izapideetan bitarteko elektronikoa erabiltzeko betebeharra arautzen duena), eta deialdi honetako 27. oinarrian laguntza berrietarako adierazitakoa izango da eta 35. oinarrian laguntza berritzeetarako adierazitakoa. Elkarreragingarritasun-eskema nazionala onartzen duen 4/2010 Errege Dekretuan eta hura garatzen duen araudian erregulatzen diren formatuetara egokituko da dokumentazio hori.

2.— Eskabide telematikoa osorik betetakoan, eskatzailea identifikatu egin beharko da egoitza elektronikoa onartzen duen sinadura elektronikoko edozein sistemaren bidez. Horren ondoren, eskabidearen erregistro-prozesu elektronikoa osatzeko moduan izango da, alegia, sinadura elektronikoa bidez eskabide bati balioa emateko, erregistratu dela jasota geratu beharko du. Hori ziurtatzeko, eskatzaileak agiriaren erregistro-elektronikoa/aurkezpen-erregistroa eskura dezake, «Ikusi egiaztagiria E/E» aukerarekin. Ez da onartuko erabat modu elektronikoa bete eta erregistratu ez den eskabiderik.

3.— Helbide honetan ageri dira onartutako identifikazio-sistema elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikoko-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

4.— Eskabideak –berriak zein berritzeenak– aurkezteko epea agindu hau EHAA argitaratu eta hurrengo egunetik 2025eko irailaren 8ra arte, hori barne, izango da.

5.— Izangai bakoitzak eskabide bakar batekin parte hartu ahal izango du deialdi honetan. Informatika-aplikazioak ez die beste eskabiderik egiten utziko aurretik eskabide bat eginda duten hautagaiei.

6.— Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, ezingo da eskabiderik aldatu, Zientzia Politikako Zuzendaritzak behar bezala baimendutako salbuespeneko kasuetan izan ezik.

7.— Agindu honen III., IV. eta V. eranskinetan azaltzen dira eskabide-ereduak.

22. oinarria.— Eskaera aurkeztearen inplikazioa.

Laguntzaren eskaera aurkezteak berekin dakar:

1.— Deialdiaren oinarriak onartzea.

2.— Interesdunaren baimena, eskaeran jasotako datuak Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko fitxategi informatizatuaren sartzeko.

3.— Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailari baimena ematea beste administrazio batzuekin elkarreragingarritasun-zerbitzuen bitartez era automatizatuan kontsultatzeko eta eskuratzeko laguntza izapidetzeko behar-beharrezkoak diren datuak.

23. oinarria.— Eskabideetako akatsak zuzentzea.

Laguntzen eskabideak oso-osorik beteta etorri ezean, edo manuzko agiri guztiekin batera aurkeztzen ez badira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68.1 artikulua araberak, interesdunari eskatuko zaio akats hori zuzentzeko edo nahitaezko agiriak telematikoki aurkezteko hamar egun balioduneko epe luzaezinean. Zuzentze-prozedura hori egiteko, 21. oinarriaren 2. eta 3. apartatueta ezarritako prozedurari jarraituko zaio. Eskatzaileak hala egiten ez badu, eskabideari uko egin diola ulertuko da; hala ere, Administrazioak uko-egite edo atzera-egite hori adierazten duen berariazko ebazpena eman beharko du. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21.1 artikuluan arautzen den moduan jakinarazi beharko da ebazpen hori.

Zuzentzeko errekerimendua jakinarazteko, zuzendu beharreko eskabideen zerrenda argitaratuko da egoitza elektronikoko iragarki-taulan: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>. Era berean, jakinarazpen elektronikoko bat bidaliko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>). Ziurtagiri elektronikoen bidez sartuko da bertara.

24. oinarria.— Laguntzak emateko prozedurak.

1.— Deialdi honetan aurreikusitako laguntza berriak lehiaketa bidez emango dira, modu independentean ikerketa orokorrerako eta berariazko ikerketarako, publizitateari, gardentasunari, objektibotasunari, berdintasunari eta bereizkeriarik ezari buruzko printzipioen arabera.

Horretarako, aurkeztutako eskabideak alderatuz emango dira laguntzak, laguntzen artean hautapen-irizpideen arabera hurrenkera bat ezartzeko. 65 puntu lortzen dutenei soilik emango zaie laguntza, hurrengo kapitulueta jasotzen diren baldintzetan.

2.— Laguntzak era independentean berrituko dira, izan ikerketa orokorreko modalitatean zein ikerketa espezifikoko modalitatean, baldin eta eskabidea garaiz eta forma egokian aurkeztzen bada eta 33. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen direla agiri bidez egiaztatzen bada, betiere.

4.1 oinarrian aurreikusitako zenbatekoa kalkulatzeko, oinarritzat hartu da programa honetan lege jardunean diren gaitutako onuradun guztiek berritzea eskatuko dutela.

Doktoratu ondoko orientazio-aldia betetzeko finantzaketaren ondorioetarako, tesiak irakurtzeko ordenaren arabera emango dira laguntzak. Doktoratu ondoko orientazio-aldiari atxikitze eska-bideak 9.9 oinarrian ezarritako moduan onartuko dira. Oinarri horretan aurreikusitako laguntza Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordearen ebazpen bidez emango da. Aurkeztutako eta izapide-tzen ari diren eskaerei ezin izan bazaie erantzun esleitutako aurrekontu-zuzkidura agortu delako, horregatik ukatuko zaie Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordearen ebazpen bidez.

III. KAPITULUA

LAGUNTZA BERRIAK, IKERKETA OROKORREKOAK ETA IKERKETA ESPEZIFIKOKOAK.

1. ATALA

BETEKIZUNAK ETA AGIRIAK

25. oinarria.— Eskatzaileen betekizunak.

1.— EAEko udalerriren batean erroldatuta egotea eskabidea aurkezteko unean; 2025eko urtar-rilaren 1etik aurrera A modalitatean aurkeztuz gero, edo 2023ko urtarilaren 1etik aurrera B edo I. modalitateetan aurkeztuz gero.

Hala ere, onartu egingo dira Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egon ohi diren pertsonen eskabideak, baldin eta betekizun hori betetzen ez badute deialdi honen xedearekin lotutako graduako edo graduondoko unibertsitate-ikasketak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egin dituztelako.

2.– Erkidegotik kanpoko atzeritarren kasuan, bizileku-baimena edukitzea.

3.– Doktorego-programa ofizial batean matrikulatuta edo onartuta dagoela egiaztatzea.

Hala ere, deialdian parte hartzeko eskabidea onartuko zaie 2025eko azaroaren 15erako doktorego-programan onartuak izatea espero duten pertsona guztiei. Eskabide hori behin-behinean ebaluatuko da, eta, behin betiko onartzeko, eskatzaileak Zientzia Politikako Zuzendaritzara programan onartu dutela egiaztatzen duten agiriak igorri beharko ditu informatika-aplikazioaren bidez, hartarako ezarritako epean.

4.– Titulazio hauetakoren bat duela egiaztatzea:

a) Graduako eta unibertsitate-masterreko Espainiako titulu ofiziala, baldin eta gutxienez 300 ECTS kreditu gainditu badira (horietatik, gutxienez, 60 kredituk master-mailakoak izan behar dute) bi irakaskuntza horietan. Ezinbesteko betekizuna da unibertsitate-masterra amaituta izatea.

b) Espainiako unibertsitate-titulu ofiziala (Lizentzia, Arkitektura, Ingeniaritza, Arkitektura teknikoa, Ingeniaritza teknikoa, Diplomatura), edo Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Esparrua osatzen duen beste herrialde batekoa, masterreko sarbidea lortzeko gaitzen duena, urriaren 18ko 889/2022 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera (atzerriko hezkuntza-sistemako unibertsitate-irakaskuntzak homologatzeko, baliokidetzat jotzeko eta baliozkotzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituen eta aurreko antolamendu akademikoetako unibertsitate-titulu ofizialak goi mailako hezkuntza kualifikazioen Espainiako esparruan duten baliokidetasuna ezartzeko prozedura arautzen duena), eta unibertsitate-ikasketa ofizial guztietan gutxienez 300 ECTS kreditu gainditu izana, eta horietatik, gutxienez 60 master-mailakoak izatea. Ezinbesteko betekizuna da unibertsitate-masterra amaituta izatea.

Nolanahi ere, kautelaz onartuko dira, a) eta b) puntuetan deskribatutako kasuetan, eskabidea egiten den unean, master-amaierako lanaren kalifikazioaren zain daudelako soilik, masterreko ikasketak bukatu ez dituzten eta doktorego-programan sartzeko master-titulua 2025eko urriaren 31rako lortzea espero duten pertsonen eskabideak. Eskabidea behin betiko onartuko da horretarako ezarritako epean, hots, 2025eko urriaren 31 baino lehen masterra amaitu duela egiaztatzen duten agiri ofizialak Zientzia Politikako Zuzendaritzara igortzen dituenean eskatzaileak.

a) eta b) puntuetan deskribatutako kasuetan, unibertsitate-master ofizialak izango dira baliozkoak, baina ez berezko masterrak.

c) Goi-mailako hezkuntzarako kualifikazioen espainiar esparruko 3. mailari dagokion baliokidetasuna eskuratu duen unibertsitate-titulu ofiziala, urriaren 18ko 889/2022 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera (atzerriko hezkuntza-sistemako unibertsitate-irakaskuntzak homologatzeko, baliokidetzat jotzeko eta baliozkotzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituen eta aurreko antolamendu akademikoetako unibertsitate-titulu ofizialak goi mailako hezkuntza kualifikazioen Espainiako esparruan duten baliokidetasuna ezartzeko prozedura arautzen duena).

Kasu honetan, c) puntukoan, baliozkotzat joko da unibertsitateak emandako ziurtagiria, titulua lortzeko ECTS kreditu guztiak gainditu direla egiaztatzen badu.

Aurreko kasu guztietan, unibertsitate-graduak titulatu bat baino gehiago izanez gero, espediente akademikoa eta titulazioa eskuratzeko data kalkulatzeko, hautatutako doktorego-programarekin zerikusirik handiena duena, soilik, hartuko da kontuan. Gainerako titulazioak ere kontuan hartu ahal izango dira curriculum vitae balioesteko.

5.– Gradu, lizentzia, arkitektura, ingeniari, arkitektura tekniko, ingeniari tekniko edo diplomaturako ikasketen amaiera-data 2021eko ekaina izango da, edo geroagoko data, salbuespen hauekin:

a) Amaiera-data 2020ko ekaina edo geroagoko data izan daiteke 2019ko ekainetik 2021eko ekainera bitarte, gutxienez 3 hilabetez, 3 urtetik beherako seme-alabak artatzen eta zaintzen aritu diren eskatzaileen kasuan.

b) Ikasketak amaitzeko data 2017ko ekaina edo geroagoko data izan daiteke Medikuntza, Farmazia, Biologia, Kimika edo Psikologia lizentziadunentzat, baldin eta laguntza eskatzen dutenean Medikuntzako Espezialitateko titulu ofiziala (BABE) edo Farmaziako Espezialitatekoa (BAFE) badute, edo Biologia, Kimika edo Psikologiako espezialitateetako ziurtagiri ofiziala (BABE, BAKE edo BAPE, hurrenez hurren).

c) Ikasketak amaitzeko data 2019ko ekaina edo geroagoko data izan daiteke eskatzaileek % 33ko desgaitasuna edo handiagoa izanik, egiaztatzen badute bateragarria dela proposatutako ikerketa-proiektua gauzatzearekin.

6.– Batez besteko nota hau izatea, edo hortik gorakoa:

a) 6 puntu, 10., 11. eta 12. arloak egiteko.

b) 6,5 puntu, 1., 2., 3., 8., 9., 13., 15. eta 16. arloak egiteko.

c) 7 puntu, 4., 5., 6., 7., 14., 17., eta 18. arloak egiteko.

d) 6,5 puntu, ikerketa espezifikoko arloetan parte hartzeko, neutronikan zein hezkuntzan.

Ikasketen espedienteak ez badu jasotzen batez besteko nota 1etik 10era bitarteko eskalan, honela kalkulatu da: ikasgai bakoitzean lortutako zenbakizko kalifikazioa bider ikasgai horretako kreditu-kopurua, zati kalifikazioarekin guztira lortutako kreditu guztien batura. Berritu ez diren planen kasuan, batez besteko nota izango da lortutako kalifikazioen batuketatik zati gainditutako ikasgai guztien kopurua.

Espedientearen batez bestekoa kalkulatu ahal izateko, baliozkotu edo egokitu dituen unibertsitateak kalifikatu ez dituen baliozkotutako edo egokitutako ikasgaien edo kredituen kasuan, jatorrizko ikastetxean edo ikasketetan lortutako kalifikazioak zenbatuko dira, agiri bidez egiaztatuta baldin badaude, betiere. Agiri bidez egiaztatu ezean, gainditutaz joko dira.

Era berean, espedienteko batez besteko nota kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko beste espezialitate batzuetako ikasgaietan lortutako notak, ezta master-ikasketen notak ere.

Ikasketak atzerrian egin dituzten eskatzaileen kasuan, Espainiako Gobernuak Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak emandako «Batez besteko notaren baliokidetasun-adierazpena» delakoan edo ANECaren ziurtagiri ofizialean ageri den espediente akademikoko batez besteko nota hartuko da aintzat.

26. oinarria.— Betekizunak betetzea.

1.— Eskatzaileek laguntza-eskabidea aurkeztzen dutenean egiaztatu beharko dute baldintzak betetzen dituztela, berariaz aipatutako salbuespenetan izan ezik.

2.— Betekizun horiek betetzen ez dituztenak edo eskatutako epean eta moduan egiaztatzen ez dituztenak hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira; ildo horretan, 28.2 oinarrian ezarritakoa hartu beharko da aintzat.

27. oinarria.— Laguntza berrietarako nahitaezko agiriak.

Ondoren adierazten diren agiriak informatika-aplikazio bidez aurkeztu beharko dira eska-bide-orriarekin batera, 21. oinarriaren 1., 2. eta 3. apartatueta adierazitakoaren arabera.

1.— Eskatzailea, egun, EAEko udalerriren batean errolatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria. 2025eko urtarrilaren 1etik, gutxienez, errolatuta egon behar du A modalitatean aurkeztuz gero, eta, 2023kotik, B edo I. modalitatean aurkeztuz gero. Ziurtagiria eskaerak aurkezteko epean emana izan beharko da.

Deialdi honen xedearekin lotutako unibertsitate-ikasketak direla-eta, betekizun hori betetzen ez duenak, 25.1 oinarrian aurreikusten den bezala, ikasketa horien matrikula edo beste edozein egiaztagiri ofizial aurkeztu beharko du; halaber, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu egiaztatzeko aurrez Euskal Autonomia Erkidegoan errolatuta egon dela, eta, justifikatu beharreko aldi horretan guztian beste autonomia-erkidego batean edo atzerrian errolatuta egon dela (atzerrian egon bada, enbaxadako erregistroa aurkeztu beharko du).

2.— Bizileku-baimena indarrean, hala badagokio.

3.— 25.4 oinarrian eskatzen den titulua edo titulua emateko eskubideak ordaindu direla egiaztatzen duen agiria. Egiaztapenak egingo dira, eta, horretarako, kontsulta egingo zaie Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako erregistroei, administrazio publikoen datu-bitartekaritzarako plataformari, edo ziurtagiriak ematen dituen erakundeari, kasuaren arabera. Kontsulta hori kasu guztietan egingo da, salbu eta eskatzailea aurka agertzen bada arrazoiak adierazita. Modu arrazoituan aurka agertuz gero, nahitaez aurkeztu beharko da kontsultaren xede den dokumentua. Informatika-aplikazioak dagokion titulua kargatzen ez badu, eskatzaileak ziurtagiria igo beharko du aplikaziora.

4.— Gradu-ikasketen ziurtagiri akademiko ofiziala, 25.4 oinarrian ezartzen den bezala, unitate arduradunak emana. Ikasketen ziurtagirian, datu hauek jasoko dira: ikasketen izena, titulazioaren programako ikasgai guztiak, gainditutako ikasgaiak eta lortutako kalifikazioak eta kalifikazio horiek noiz eskuratu diren. Espedienteak 1etik 10era bitarteko batez besteko nota adierazi behar du.

Ikasketak atzerrian egin badira, ziurtagiri akademiko ofiziala aurkeztuko da, baita ziurtagiri horren zinpeko itzulpena ere, baldin eta ziurtagiria EAEko bi hizkuntza ofizialetako batean edo ingelesez ez badago. Edonola ere, espediente akademikoaren ziurtagirian edo espedienteari atxikitako beste agiri batean jaso beharko da zein diren dagokion ebaluazio-sistemako gehieneko eta gutxieneko kalifikazioak, eta zein den ikasgai bakoitza gainditzeko behar den gutxieneko kalifikazioa. Gainera, Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziaren «Batez besteko notaren baliokidetasun-adierazpena» edo ANECAren ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko du, eta adierazi zein den espediente akademikoaren batez besteko kalifikazioa Espainiako ebaluazio-sistemaren barruan.

Unibertsitate-graduako titulu bat baino gehiago izanez gero, espediente akademikoa eta titulazioa eskuratzeko data kalkulatzeko, hautatutako doktorego-programarekin zerikusirik handiena duena soilik hartuko da kontuan. Gainerako titulazioak ere kontuan hartu ahal izango dira curriculum vitae balioesteko.

5.— Unibertsitateen kasuan, eskatzailea ezarpen-zentroari atxikitako sailean onartu dutela adierazten duen idazkia, saileko zuzendariak sinatuta. Sail hori bat etorriko da proiektuko zuzendariaren edo zuzendarikidearen sailarekin.

6.— Ezarpen-zentroaren konpromiso idatzia, formatu normalizatuan, bertako legezko ordezkariak izenpetua (Ikerketako errektoreordeak edo haren baliokideak unibertsitateen kasuan), laguntza lortzen duen doktore ez den ikertzailearen doktoratu aurreko kontratua formalizatzeko.

Idazki horretan beren-beregi jasoko da bete egingo direla agindu honen 10. oinarrian xedatutako betebeharrak. Horretarako, informatika-aplikazioan eskuragarri dagoen txantiloia erabiliko da.

Ezarpen-zentroa EHU duten eskabideei dagokienez, Zientzia Politikako Zuzendaritzak ofizioz eskatuko du konpromiso hori.

7.— Doktorego-programa baterako matrikula ofiziala edo onarpena, 25.3 oinarrian ezarritako eran, formatu normalizatuan, programa horren arduradunak sinatua.

Onarpena 2025eko azarorako lortzea espero denean, eskatzaileak behin betiko onarpenaren ziurtagiria bidali beharko dio zientzia Politikako Zuzendaritzari 2025eko azaroaren 14rako, egun hori barne dela.

8.— Eskatzailea onartu duten edo eskatzaileak onartua izatea espero duen doktorego-programaren ezaugarri adierazgarrienak bilduko dituen memoria, formatu normalizatuan, eta doktorego-tesiak proiektuarekin duen lotura. Ezaugarri horien artean, espresuki nabarmenduko dira eskatzailearen ikerketa-prestakuntzarako hautatutako doktorego-programaren oinarri direnak (3 orrialde, gehienez).

9.— Eskatzailea hartuko duen ikerketa-taldeari buruzko memoria formatu normalizatuan, eskatzailearen zientzia-kalitatea, prestakuntza-ahalmena eta finantzaketa lehiakorra eskuratzeko gaitasuna adierazita (5 orrialde, gehienez).

Horretarako, I+G+b proiektu batean edo ikerketa-lerro jakin batean, egindako edo egiten ari diren lankidetzen bidez egiaztatuta, ikertzaile gisa lankidetzan diharduten eta hautagaiaren prestakuntza-programaren garapenean parte hartzeko hitzeman duten pertsona edo pertsonak joko dira ikertzaile-taldetzat –formalki edo informalki eratutako taldea izan—.

10.— Doktorego-tesiaren proiektuaren memoria zientifiko-teknikoa formatu normalizatuan, proiektuaren zuzendariak sinatua, eta zuzendarikideak, halakorik balego. Hau izango da memoria horren edukia: proiektuaren izenburua, laburpena, aurrekariak, helburuak, metodologia eta lan-plana, interes zientifikoa edo soziala, eta bibliografia nabarmenena (5 orrialde, gehienez). Eduki horrez gain, hau jaso beharko du memoriak berariaz:

a) Espero daitekeen ala ez eskatzaileak doktorego-tesiaren proiektuaren eta haren defentsaren helburuak lortzea laguntza jasoko duen lanaldi osoko 4 urteetan.

11.— Laguntzaren lehenengo 3 urteetan, atzerrian egingo den ikerketa-egonaldiaren plangintza, formatu normalizatuan, lankidetzat egingo den ikerketa-taldearen eta zentroaren garrantzia esplizituki adierazita (orrialde 1, gehienez).

12.– Eskatzailearen curriculum vitae normalizatua. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialeko edozeinetan nahiz ingelesez aurkeztu ahalko da curriculuma.

13.– Curriculumean alegatutako merezimendu akademiko eta zientifikoen egiaztagiria. Argitalpenak egin badira, lehen orrialdea aurkeztu beharko da. Beste laguntza batzuk eskuratu badira, aldiz, emate-ebazpena.

14.– Sinatutako doktorego-tesiaren proiektuaren zuzendariaren (eta, hala badagokio, zuzendarikidearen) curriculum vitae laburtua (azken 6 urteak). EAEko hizkuntza ofizialeko edozeinetan edo ingelesez aurkeztu ahalko da curriculuma. 6 urteko muga horrek txantiloiko C atalari (merezimendu garrantzitsuenak) baino ez dio eragiten.

Ziurtatutako etenaldiarekiko proportzionalki luzatuko da aintzat hartzeko ikerketa-jardueraren aldia, baldin eta ikerketa-lanetan etenaldiren bat gertatu bada egoera hauetakoren baten ondorioz: iraupen luzeko aldi baterako lanerako ezintasuna; amatasuna; aitatasuna; edoskitze-aldiko arriskua; adopzioa edo harrera, edo liberazioa, kargu hauetakoren bat betetzeko bada: unibertsitateko pertsona bakarreko kudeaketa-karguak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko zuzendaritza-karguak eta administrazio publikoetako karguak. Salbuespena izango da 10 astetik gorako amatasun edo aitatasunagatiko etenaldietan, horietan seme edo alaba bakoitzeko urtebete luzatuko baita ebaluatzeko aldia.

15.– Eskabideari erantsitako erantzukizunpeko adierazpenean jasotakoa egia dela egiaztatzen duten ziurtagiriak, hala badagokio. Erantzukizunpeko adierazpenean bertan dago adierazita zein kasutan egin behar den hori.

16.– Master-titulua edo master-eskubideak ordaindu direla egiaztatzen duen agiria, eta masterren espediente akademikoa, masterraren ezaugarri orokorrak, titulua, iraupena kreditutan eta denboran adierazita. Egiaztapenak egingo dira, eta, horretarako, kontsulta egingo zaie Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako erregistroei, administrazio publikoen datu-bitartekaritzarako plataformari, edo ziurtagiriak ematen dituen erakundeari, kasuaren arabera. Kontsulta hori kasu guztietan egingo da, salbu eta eskatzailea aurka agertzen bada arrazoiak adierazita. Modu arrazoituan aurka agertuz gero, nahitaez aurkeztu beharko dira kontsultaren xede diren dokumentuak. Informatika-aplikazioak dagokion titulua kargatzen ez badu, eskatzaileak ziurtagiria igo beharko du aplikaziora.

Onarpena 2025eko urrirako lortzea espero denean, eskatzaileak behin betiko onarpenaren ziurtagiria bidali beharko du 2025eko urriaren 31rako, egun hori barne dela.

17.– B eta I. modalitateetarako soilik, eta hala badagokio, agiri ofiziala edo Euskal unibertsitate-sistemako (EUS) unibertsitateekin egindako hitzarmena, non berariaz jasoko baita hautatutako doktorego-programarako lankidetza.

18.– Ziurtagiria, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duela dioena, foru-aldundietako organo eskudunek, IMSERSOk edo parekideak aitortuta. Gainera, desgaitasuna dutenen txandan parte hartzen dutenek eskabide-inprimakian adierazi beharko dute.

19.– 25.5 oinarrian bildutako salbuespenak egiaztatzen dituen agiri ofizialak, halakorik behar izanez gero.

Aplikazioan, horretarako dauden txantiloien bidez aurkeztu beharko dira 6., 7., 8., 9., 10., 11., 12. eta 14. puntuetan eskatutako agiriak. Ez badira txantilo horiek erabiltzen, edo kasu kasu aipatu den luzera gainditzen bada, edo memoria zientifiko-teknikoa eta zuzendariaren (eta hala badagokio, zuzendarikidearen) curriculum sinatu gabe badago, eskabidea zuzendu beharko da.

Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako edozeinetan edo ingelesez aurkeztu ahal izango dira 8., 9., 10. eta 11. puntuetan adierazitako memoriak.

Bidezkoa den kasuan, eskatzaileak hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira eskabidea zuzendu bada, baina agiria sinatu gabe badago, denbora-muga gainditu bada edo ezarritako formatuan ez badago.

2. ATALA

HAUTAPEN- ETA ADJUDIKAZIO-PROZESUA

28. oinarria.— Hautapen-prozesuko onarpen-prozedura.

1.— Eskabideak zuzentzeko epea igaro eta aurkeztutako agiriak aztertu ostean, Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordeak ebazpena emango du, hautapen-prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen gainean. Era berean, ebazpen horretan adieraziko da noiz egingo dituzten elkarriketa pertsonalak, arlo bakoitzeko aholku-batzorde espezifikoek balioetsi beharrekoak.

Egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuz jakinaraziko da aipatutako ebazpena: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>. Era berean, jakinarazpen elektroniko bat bidaliko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>). Ziurtagiri elektronikoaren bidez sartuko da bertara.

2.— Aurreko apartatuan adierazitako ebazpenean baztertutako pertsonak elkarriketa pertsonaletara joan ahal izango dira, eta arlo bakoitzeko aholku-batzorde espezifikoek balioetsi ahal izango dituzte, kautelaz, betiere, baldin eta baztertzearen aurkako errekurtoa aurkezten badute edo dagokion ataleko elkarriketak egiteko ezarritako epea baino lehen egiaztatzen badute errekurtoa aurkeztu nahi dutela. Errekurtso hori ezesten bada edo azkenean aurkezten ez bada, elkarriketa pertsonalak ez du baliorik izango, eta aholku-batzorde espezifikoak ematen duen balorazioak ere ez.

29. oinarria.— Aholku-batzorde espezifikoak, ebaluazio-irizpideak eta baremoa.

1.— Hautapen-prozesurako onartutako pertsonak I. eranskinean definitutako arlo bakoitzari dagokion aholku-batzorde espezifikoak balioetsiko ditu.

2.— Aholku-batzorde espezifikoetako kideak sona handiko pertsonak izango dira ikasketa- eta ikerketa-eremuan, eta Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuak izendatuko ditu.

3.— Aholku-batzorde espezifikoek ebaluatuko dituzte onartutako eskabideak, eta txosten zientifiko-tekniko bat emango dute, irizpide hauen arabera hautagai bakoitzari emandako puntuazioekin:

a) Espediente akademikoa: puntuazioa kalkulatzeko, espedientearen batez bestekoa hartuko da oinarritzat, 25.6 oinarrian adierazitakoari jarraikiz, eta zenbaki hori bider 3 kalkulatu da. 30 puntu, gehienez. Kalkulu hori Zientzia Politikako Zuzendaritzak egingo du ofizioz.

b) Eskatzailearen curriculum vitae. 5 puntu, gehienez. Atal honetan, puntu 1 eskuratu ahal izango da Ikasiker programaren lankidetza-beka bat edo batzuk lortzeagatik.

c) Doktorego-programa: a) eskatzailearen ikerketa-prestakuntzarako kalitatea eta egokitasuna (3 puntu, gehienez), eta b) zenbateraino datorren bat EAEko I+G+b estrategiarekin (7 puntu, gehienez). Horren harira, eta 2.1 oinarrian xedatutakoa aintzat hartuta, ezarpen-zentroaren

egoitza soziala interesduna matrikulatuta dagoen doktorego-programako unibertsitatearen autonomia-erkidego berean egon behar da.

Euskal unibertsitate-sistemako (EUS) doktorego-programak eta, sistema horretakoak ez izanagatik ere, EUSeko unibertsitateekin egindako hitzarmenetan jasota dauden programak, EAEko I+G+b estrategiarekin % 100 bat datozela iritziko zaio (7 puntu).

Ulertuko da EUSetik kanpoko gainerako doktorego-programen bat-etortze maila baliogabea dela, salbu eta egiaztatzen bada Zientzia eta Teknologiarako Euskal Sistema osatzen duten ikertzaileak inplikaturik daudela proposatutako tesi-proiektuaren zuzendaritza bateratuan (2 puntu), edo zuzendarikide horiek zuzenean parte hartzen dutela doktorego-programa horietan (4 puntu).

d) Doktorego-tesiaren proiektua: kalitate zientifiko-teknikoa, aurkeztutako proiektuaren eta ikerketa-planaren interesa eta bideragarritasuna. Atzerriko ikerketa-egonaldiaren plangintzarekin batera ebaluatuko da, eta atzerriko ikerketa-egonaldia doktore-tesiaren proiektua garatzeko egokia den baloratuko da. 10 puntu, gehienez.

e) Zientzia Zuzendaritza: ikerketa-proiektuaren zuzendariaren eta zuzendarikidearen historia zientifikoa, eta eskatzailea sartuko den ikerketa-taldearen prestakuntza-ahalmena eta kalitate zientifikoa. 20 puntu, gehienez.

f) Elkarrikerketa pertsonala: aurrez aurrekoa izango da, eta eskatzailearen prestakuntzari eta curriculumari, ikerketa-proiektuari edo egoki irizten zaion beste edozein arlori buruz hitz egingo da. 25 puntu, gehienez.

4.– Laguntza ukatzeko arrazoi izango da eskatzaileak elkarrikerketa ez egitea Zientzia Politikako Zuzendaritzak ezarritako modalitatean, edo 65 puntu baino gutxiago lortzea.

30. oinarria.– Nola jokatu elkarriketetan.

1.– Aholku-batzorde espezifikoetako kideak ez badira ondo moldatzen ebaluatu behar duten pertsonak aukeratzen duen EAEko hizkuntza ofizialen batean, Zientzia Politikako Zuzendaritzak bermatu beharko du, batetik, aurkeztutako agiriak itzuliko direla, eta, bestetik, aldibereko itzulpen-zerbitzua egongo dela interpretazio zerbitzu baten bidez, ebaluazio-batzordeko elkarrikerketa pertsonalerako.

2.– Zientzia Politikako Zuzendaritzak desgaitasuna duten pertsonen emango dizkie giza baliabide eta baliabide material osagarriak, egingo dituzten elkarriketetan aukera berak izango dituztela bermatuko dizkieten baliabideak, hain zuzen ere.

3.– Zientzia Politikako Zuzendaritzak, hautapen-probetan aukera- eta tratu-berdintasuna bermatzeko xedez, deialdiaren baldintzak egokitu ahal izango ditu, proba egingo den lekura iristeko ezintasuna duten pertsonak daudenean osasun-eragozpen larriak tarteko. Zientzia Politikako Zuzendaritzari egoera horren berri eman ahal izango zaio proba egin baino lehen, eta mediku-ziurtagiri bidez egiaztatu beharko da. Elkarriketara joan ezina dakarren eragozpena aurreikusteko modukoa denean, astebete lehenago jakinarazi eta egiaztatu beharko da.

31.– oinarria.– Laguntza berriak adjudikatzeko prozedura.

1.– Lehiaketa izango da agindu honetan araututako laguntza berriak esleitzeko prozedura.

2.– Ebaluazioaren emaitzak Zientzia Politikako Zuzendaritzari helaraziko zaizkio.

3.– Zientzia Politikako Zuzendaritzak deialdiaren oinarriak zuzen aplikatzen direla gainbegiratu du, eta, prozedura bakoitzean –ikerketa orokorra eta ikerketa espezifikoak– baliabideak esleitu ditu, eta dagokion ebazpen-proposamena helaraziko dio Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordeari.

4.– Hau izango da laguntzok esleitzeko prozedura:

a) Lehenengo, desgaitasuna duten pertsonen kupoari dagozkion laguntzak adjudikatuko dira. Hautatzeko moduko behar adina eskabide ez balego, adjudikatu gabeko laguntzak ikerketa orokorreari gehituko zaizkie eta hurrengo apartatuan xedatuaren arabera adjudikatuko dira.

b) Laguntza berriak ikerketa orokorrean: arlo guztietan onuradunak izateko gisan eta arlo bakoitzean emandako laguntza-kopurua portzentualki uniformeak izateko gisan egingo da adjudikazioa, arlo bakoitzean eskabide hautagarrien kopuruak hala ahalbidetzen badu, betiere. Honela egingo da esleipena:

i.– Aholku-batzordeak egindako balorazioaren ordenari jarraituz ordenatuko dira arlo bakoitzeko eskabide hautagarriak, eta ehuneko hau emango zaie puntuazio handiena erdietsi duten baina gainditu ez duten eskabideei: laguntza berrien kopurua/eskabide hautagarrien kopurua.

ii.– Aurreko prozedura egin eta gero, laguntza guztia adjudikatu ez bada, emandako laguntzen azken ehunekoa a) puntuazio zehaztutako ehunekora gehien hurbiltzen den arloetan emango dira laguntzak.

c) Laguntza berriak ikerketa espezifikoan: honela egingo da adjudikazioa:

i.– Eskabide hautagarriak puntuazio handienetik txikienera ordenatuko dira arlo bietan. Puntuazio handiena eskuratu duten bi eskabideei emango zaie laguntza arlo bietan (neutronika eta hezkuntza).

ii.– Arlo espezifikoaren batean ezin badira aurreikusitako laguntzak eman, ez dagoelako eskabide hautagarri nahikorik, esleitu ez diren laguntzak beste arlo espezifikoan eskuragarri dauden laguntzei gehituko zaizkie.

iii.– Aurreko urratsa egin eta gero, ez bada posible arlo espezifikoetarako aurreikusitako lau laguntzak ematea, eman ez diren laguntzak ikerketa orokorrean eskuragarri dauden laguntzei gehituko zaizkie, aurreikusitako 110 laguntza berrien guztizkoa eman arte.

5.– Puntuazio-berdinketak ebazteko, oinarritzat hartuko da eskabideak betetzeko aplikazioak txikitik handira ematen duen ausazko zenbaki bat. Zenbaki hori aplikazio telematikoan sortzen den eskabide-inprimakian agertuko da.

6.– Hauek jasoko dituzte ebazpen-proposamenek: onuradunen zerrenda eta dagokien zenbait ekonomiko xehatua, eskuragarri dagoen kreditu-mugara arte; erreserben zerrenda (halakorik balego), berriazko aholku-batzordeek 65 puntu edo gehiago eman arren laguntza-proposamenik jaso ez duten eskabide guztien, arloko beheranzko puntuazioaren arabera; ukatutako eskabideen zerrenda, baztertzeko arrazoiak zehaztuta; eta, baztertutako eskabideen zerrenda, baztertzeko arrazoiak zehaztuta.

32. oinarria.– Ebazpena, ebazteko epea, jakinarazpena, errekursoak eta uko-egiteen ondoriozko postu hutsen adjudikazio-prozedura.

1.– Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordearen esanbidezko ebazpen bakarraren bidez eman edo ukatuko dira laguntza berriak, dagokion prozedura bakoitzean, Zientzia Politikako zuzendaritzak emandako ebazpen-proposamena aintzat hartuta.

2.– Ebazpen hori arrazoitu egin beharko da, eta hauek jasoko ditu: onuradunen zerrenda eta dagozkien zenbateko ekonomiko xehatuak; erreserben zerrenda (halakorik bada), 65 puntu edo gehiago lortu arren laguntza-proposamenik jaso ez duten eskabide guztiena, arlokako beheranzko puntuazioaren arabera ukatutako eskabideen zerrenda, ukatzeko arrazoiak adierazita; eta baztertutako eskabideen zerrenda, baztertzeko arrazoiak zehaztuta.

3.– Agindu hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sei hilabeteko epean eman eta jakinarazi beharko da ebazpena, beranduenez. Adierazitako epe horretan ebazpena jakinarazten ez bada, ulertuko da eskabideak ez direla onartu, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

4.– Emandako laguntzak egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuz egingo da jakinarazpena: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>. Era berean, jakinarazpen elektronikoko bat igorriko da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>), eta ziurtagiri elektronikoarekin sartu beharko da bertara. Horrez gain, publikotasun-ondorioetarako, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian zerrenda bat argitaratuko da, adierazteko nortzuk diren onuradunak eta zenbateko dirulaguntza ematen zaien, iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo sei hilabeteetan.

5.– Alde batera utzi gabe aurreko 4. apartatuan ezarritakoa, Zientzia Politikako Zuzendaritzak argitalpenen berri bidali ahal izango die interesdunei, SMS edo posta elektronikoko bidez. Abisu horiek ez dute inolaz ere egindako jakinarazpenaren ondorioz izango.

6.– Ebazpen horren aurka, interesdunek Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuari gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango diote informatika-aplikazioaren bidez; horretarako, hilabeteko epea izango dute, ebazpen hau www.euskadi.eus egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

7.– Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordearen ebazpen baten bidez, laguntzak emango zaizkie erreserben zerrendetan azaltzen diren eskatzaileei, baldin eta laguntzak emateko ebazpena argitaratu eta hurrengo 15 egunetan uko egiten bazaie.

Hutsik geratutako plazari dagokion arloan emandako azken laguntzaren ondorengo lekuan dauden pertsonen emango zaizkie laguntza horiek. Ikerketa orokorraren kasuan ez badago erreserben zerrendarik, laguntza eman ahalko zaio baldintza hau betetzen duen eskatzaileari: lehenengoa izatea emandako laguntzen azken ehunekoa 31.4.1.a puntuan ezarritako ehunekoari gehien hurbiltzen zaion arloko erreserben zerrendan.

Ondorio horietarako, laguntzak emateko proposamena jakinaraziko die laguntzak emango dituen organoak interesdunei, onar dezaten. Proposatutako ordezkioak ez badu onartzen, prozesu hori errepikatu egin daiteke laguntza eman arte. Ordezkoak gehienez 5 orduko epea izango du laguntza onartzeko. Hori egiteko, aplikazio informatikora idatzi bat igo beharko du eta egin ezik, ez duela laguntza onartzen ulertuko da. Behin proposamena onartutakoan, emate-ebazpena emango da, eta interesdunei jakinaraziko zaie.

IV. KAPITULUA

LAGUNTZAK BERRITZEA

1. ATALA

BETEKIZUNAK ETA AGIRIAK

33. oinarria.— Betekizunak.

1.— Agindu honek ondorioak dituen egunean, 2024-2025 ikasturtean emandako doktoratu aurreko laguntza baliatzen aritzea, Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordearen ebazpenaren arabera.

2.— Doktorego-programan, jarraitutasuna eta ikerketa-proiektuko lanerako planean aurreikusi-tako jardueren aprobetxamendua egiaztatzea. Hori egiaztatzeko, 35. oinarrian adierazitako agiriak aurkeztuko dira.

3.— Hirugarren aldiz berritzen bada, atzerrian 4 eta 6 hilabete arteko egonaldi jarraitua egin dela egiaztatzea; aplikazio zentroa ez den zentro batean.

34. oinarria.— Betekizunak betetzea.

1.— Onuradunek laguntza-eskabidea aurkezten dutenean egiaztatu beharko dute betekizunak betetzen dituztela, berariaz aipatutako salbuespenetan izan ezik.

2.— Hautapen-prozesutik kanpo geldituko dira eskatutako betekizunak betetzen ez dituzten edo betetzen dituztela garaiz eta forma egokian frogatzen ez dutenak.

35. oinarria.— Laguntzak berritzeko aurkeztu beharreko nahitaezko dokumentazioa.

Ondoren zerrendatutako agiriak informatika-aplikazio bidez bakarrik aurkeztu beharko dira, eskabide-orriarekin batera, 21. oinarrietako 1., 2. eta 3. apartatuetan adierazitakoaren arabera.

1.— Laguntzaren azken berritzetik, edo, lehenengo berritzearen kasuan, laguntza eman zenetik, egindako jarduera akademiko eta ikertzaileen orri bateko memoria, kalifikazio akademikoak sartuta, halakorik balego, eta tesiaren zuzendariak sinatua, eta zuzendarikideak sinatua, halakorik balego (lehenengo, bigarren eta hirugarren berritze-kasuetan aurkeztu behar da).

Memoria EAEko hizkuntza ofizialetako edozeinetan edo gure ingurune kulturalen luze-zabal ulertzen den hizkuntza batean egon beharko da idatzita. Informatika-aplikazioan eskuragarri dagoen txantilo eguneratua erabili behar da. Ez bada txantilo hori erabiltzen, edo aipatu den luzera gainditzen bada, edo sinatu gabe badago, eskabidea zuzendu beharko da.

2.— I. modalitatean, ikerketa-proiektuaren zuzendariak sinatutako aldeko txostena, eskatzaileak egindako ikasketa- edo ikerketa-jardueri buruzkoa eta pertsona horren errendimenduari buruzkoa (lehenengo, bigarren edo hirugarren berritzeetan aurkeztu behar da).

3.— Ezarpen-zentroaren konpromisoa —bertako legezko ordezkariak sinatua (Ikerketako errektoreordeak edo haren baliokideak, unibertsitateen kasuan)—, egungo lan-kontratua hamabi hilabete gehiagor luzatzeko (lehenengo, bigarren eta hirugarren berritzeetan aurkeztu behar da). Ezarpen-zentroa EHU duten eskabideei dagokienez, zientzia Politikako Zuzendaritzak ofizioz eskatuko du konpromiso hori.

Gainera, lehenengo berritzearen kasuan, honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

1.– A eta B modalitateetan, lehenengo berritzerako, onuradunak eta programa garatzen den unibertsitateak sinatutako konpromiso-agiria aurkeztu beharko da doktorego-programa hastean.

Bigarren berritzearen kasuan, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

1.– A eta B modalitateetan, bigarren berritzerako, eskabidea aurkezteko unean dagoen azken ebaluazio positiboaren akta.

Hirugarren aldiz berritzea eskatzen dutenek honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

1.– A eta B modalitateetan, hirugarren aldiz berritzeko, laguntzaren onuradunak tesia inskribatua duen doktoratu programaren ardura duen batzorde akademikoaren baimena, doktorego ikasketak beste urte batez luzatu ahal izateko, 99/2011 Errege Dekretuaren 3.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz (doktorego ikasketa ofizialak arautzen dituen, urtarilaren 28koa).

2.– A eta B modalitateetan, hirugarren berritzerako, EGONLABUR deialdiaren onuradun izan ez bada, atzerrian egindako egonaldiaren egiaztatgia. Eskaera egiterakoan egonaldia amaitu ez bada, egonaldia hasi izanaren egiaztatgia edo horren planifikazioa.

Dena dela, egonaldia hirugarren berritzea ebatzi aurretik hasi beharko da eta eskatzaileak egonaldia hasi izanaren agiria 2025eko urriaren 17rako, egun hori barne, igo beharko du aplikazio informatikora. Betebehar hori ez betetzeak laguntza ez berritzea eragingo du.

3.– Doktorego-tesiaren defentsaren plangintza, tesiaren zuzendariak eta, halakorik badago, zuzendarikideak sinatua.

2. ATALA

EBAZPENA

36. oinarria.–Ebazpena, ebazteko epea, jakinarazpena, errekursoak eta publikotasun-prozedura.

1.– Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordearen esanbidezko ebazpen bakarraren bidez eman edo baztertuko dira berritze-eskabideak, Zientzia Politikako zuzendaritzak emandako ebazpen-proposamena aintzat hartuta.

2.– Ebazpen hori arrazoitu egin beharko da, eta onuradunen zerrenda eta dagozkien zenbateko ekonomiko xehatuak jasoko ditu; halaber, baztertutako eskabideen zerrenda jasoko du, baztertzeko arrazoiak azalduta.

3.– Ebazpena sei hilabeteko epean eman eta jakinarazi beharko da beranduenez, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabideak ukatutzat jo daitezke adierazitako epe horretan jakinarazpenik egiten ez bada, Dirulaguntzen Araubideari buruzko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22. artikuluen 5. apartatuaren arabera.

4.– Emandako laguntzak egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuz egingo da jakinarazpena: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>. Era berean, jakinarazpen elektronikoko bat igorriko da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>), eta ziurtagiri elektronikoarekin sartu beharko da bertara. Horrez gain, publikotasun-ondorioetarako, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian zerrenda bat argitaratuko da, adierazteko nortzuk diren onuradunak eta zenbateko dirulaguntza ematen zaien, iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo sei hilabeteetan.

5.– Alde batera utzi gabe aurreko 4. apartatuan ezarritakoa, Zientzia Politikako Zuzendaritzak argitalpenen berri bidali ahal izango die interesdunei, SMS edo posta elektroniko bidez. Abisu horiek ez dute inolaz ere egindako jakinarazpenaren ondoriorik izango.

6.– Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango diote interesdunek Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuari hilabeteko epean, www.euskadi.eus egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

II. ERANSKINA

EBALUAZIO-ARLOAK

Oinarrizko Zientziak.

1. arloa.— Lurraren zientziak. Lur-sistemari buruzko ikerketak dagozkio, Biosferaren, Litosferaren, Hidrosferaren eta Atmosferaren historia eta bilakaera, haien arteko elkarreraginak, egungo egoera eta etorkizunean izan dezaketen eboluzioa barne hartuta. Hauek hartzen dira barne: Mineralogia, Petrologia, Paleobiologia, Tafonomia, Geomorfologia, Hidrologia, Barne Geodinamika, Geofisika, Estratigrafia, Sedimentologia, Meteorologia, Klimatologia eta Atmosfera, eta Ingurumenaren Geokimika.

2. arloa.— Fisika eta Espazioaren Zientziak. Fisika eta Espazioaren Zientziei buruzko ikerketak dagozkio, Fisika modernoaren berezko jakintza-alorrekin batera: Fisika Kuantikoa eta materiaren eta unibertsoaren egiturari dauzkan aplikazioak. Alor hauek hartzen ditu barnean: Biofisika, Optika, Sistema Konplexuak, Fenomeno ez-linealak, Nanoteknologia, Konputazio Kuantikoa, Energia Handiko Fisika Esperimentala, Materia Kondentsatuaren Fisika, Astrofisika eta Astronomia.

3. arloa.— Matematikak. Matematikaren ikerketa-esparrua dagokio, eta alor hauek hartzen ditu barne: Geometria, Topologia, Zenbakizko Analisia, Matematika Aplikatua, Aljebra, Analisi Matematikoa, Estatistika eta Ikerketa Operatiboa.

4. arloa.— Kimika. Alor hauek ikertzea du xede, molekula-mailatik maila makroskopikoraino: substantzia naturalen, sintetikoen eta haiek dauzkaten laginen konposizioa, egitura, prestaketa eta propietateak, esperimentatzen dituzten elkarreraginak eta transformazioak, haien mekanismoa, haiek aztertzeke beharrezko tresneria eta ikertzeke beharrezko metodologia esperimentala edo teorikoa. Alor hauek hartzen ditu barnean: Kimika Ez-organikoa, Kimika Organometalikoa, Katalisia, Kimika Supramolekularra, Material Molekularrak, Nanokimika, Kimika Biologikoa, Kimika Bioteknologikoa, Kimika Fisikoa, Kimika Analitikoa eta Kimika Organikoa.

Bizitza- eta osasun-zientziak.

5. arloa.— Funtsezko Biologia eta Sistemena. Oinarrizko zenbait ikerketa-esparru hartzen ditu: Biologia Molekularra eta Zelularra, Genetika, Neurobiologia eta Garapena, Mikrobiologia, Biologia, Landareak, Minbizia eta Desberdintzea, Fisiologia, Immunologia eta Biologia konputazionala, estrukturala eta sistemena, salbuespen hauek kontuan hartuta: xede nagusiak patologiarekin lotura zuzena izatea edo gizakien osasuna hobetu nahi izatea.

6. arloa.— Biomedikuntza. Eragin biomediko handiko oinarrizko azterketak eta ikerketak dagozkio: gaixotasunen oinarrizko ereduak eta mekanismoak, diagnostiko molekularra edo zelularra, estrategia terapeutikoak, farmakologia molekularra eta sistemena, eta molekula bioaktiboak identifikatzea eta aurkitzea. Arlo hauek barne hartzen ditu: Mikrobiologia, Immunologia, Biologia, Gizakiaren Fisiologia, Farmakologia, Nutrizioa eta beste hainbat gai, arazo medikoei gehienbat esparru klinikora hurbildu gabe heltzen badiete, hala nola Biologia Zelularra eta Molekularra, Kardiobaskularra, Neurozientziak, Anatomia, Hepatologia, Heriotza Zelularra, Genetika, Minbizia, Endokrinologia, Gaixotasun Metabolikoak, Farmakoak aurkitzea, Farmakologia Molekularra, Farmakologia Orokorra eta Sistemena, Fisiologia Zelularra eta Sistemena.

Batez ere giza jatorriko materiala barne hartzen duten edo gizakiengan esperimentatzea eskatzen duten ikerketak Medikuntza Kliniko eta Epidemiologiako arloari dagozkio.

7. arloa.— Medikuntza Klinikoa eta Epidemiologia. Helburutzat gaixotasuna, haren mekanismoak edo izan litzakeen tratamenduak hobeto ezagutzea duten ikerketa guztiak dagozkio, eta ikerketen zati handi bat gizakietan egiten bada, batez ere giza jatorriko materiala barneratzen du, edo beharrezkoa da proba klinikoak egitea. Hauek hartzen ditu: Kirurgia eta Aurpegi-masailetakoa, Epidemiologia, Osasun Zerbitzuak, Gaixotasun Metabolikoak, Gaixotasun Kardiobaskularrak, Minbizia, Gaixotasun Infekziosoak, Neurologia, Psikiatria, Miszelanea.

Kirolaz eta osasunaz egiten diren ikerketak zeharkakoak izaten dira, eta arlo hau gomendatutakoa izan arren, litekeena da proiektuari beste arlo batetik heltzea egokiago izatea, eta aukera hori kontuan hartu behar da.

8. arloa.— Landare eta Animalia Biologia, Ekologia, Ingurumena. Organismo bizidunen dibertsitateari buruzko ikerketa-esparrua dago, bai eta, biosferaren eremuan, haien bilakaera eta elkarreragina ere. Egitura-, funtzio- eta dinamika-alderdiak organismoen eta ekosistemen biologiaren zenbait espazio- eta denbora-eskalatan kontuan hartzen dira: Itsas Ekologia, Mikrobiologia, Eboluzio Sistemakoa, Genetika, Landareen Kontserbazioa, Lurreko Ekologia, Fisiologia, Landare Bioteknologia, Animalien Sistemak.

9. arloa.— Elikagaien Zientzia eta Teknologia. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza. Elikagaien Zientzia eta Teknologiari elikagaien kalitateak zer ezaugarri dituen jakiteko ikerketak dagozkio; besteak beste, hauek jakitekoak: oinarri fisikoak, kimikoak eta biokimikoak, elikagaien mikrobiologia eta bioteknologia, osagai funtzionalak nola lortu eta haien bioeskuragarritasuna eta ebaluazioa. Hauek hartzen dira barne: Metabolismoa, Nutrizioa, Analisi Teknika Aurreratuak, Makromolekula Biologikoen Kimika, Elikagaien Segurtasuna, Elikagai Funtzionalak, Herdoilaren aurkako Ezaugarriak eta Osasunarentzako Ondorioak, Analisia Sistema Biologikoetan, Elikagaien Mikrobiologia, Prozesu Teknologikoak, Kontserbazio Teknologia Berriak, inplikaturako entzima-sistemen Ezaugarri Biokimikoak eta Molekularrak. Nekazaritzari landareen fitotekniarekin eta erabilerarekin eta nekazaritza- eta baso-sistemen kudeaketarekin zerikusia duten ikerketak dagozkio; besteak beste: erlazio hidrikoak eta, lurraren eta landarearen arteko elkarreragina, landareen hobekuntza genetikoak, landaketen fisiologia eta produktibitatea, gaixotasunak, izurriteak eta belar txarren ikerketa, hala nola Nekazaritza Ekonomiaren eta Politikaren esparruko beste batzuk. Abeltzaintzari eta Arrantzari, berriz, xedetzat alor hauek dituzten ikerketak dagozkie: ekoizpena, gaixotasunak eta haiei aurrea hartzeko estrategiak, abeltzaintzarako interesekoak diren animalia-espezieen ugalketa eta genetika, akuikultura eta basa-fauna.

Ingeniaritzak, Teknologia eta Arkitektura.

10. arloa.— Teknologia Mekanikoak eta Ekoizpenerakoak.

Ingeniaritza mekanikoen eta ekoizpen-ingeniaritzen alorreko ikerketa guztiek osatzen dute, bai funtsezkoek bai aplikatuek; ikerketa horien artean hauek aipa daitezke: Materialen Zientzia eta Teknologia, Materialen Modelaketa, Biomekanika, Aleazio Magnetikoak, Sentsore Magnetikoak, Termoenergetika, Termoteknia eta Energia Mekanikoa, Mekanika Estrukturala, Mekanika Konputazionala, Energia, Energia Termikoaren Biltegiratzea, Optimizazio Energetikoa, Fabrikazioa, Konformazio Plastikoa, Xafla Konformazioa, Haustura eta Nekea, Makinak eta mekanismoak, Haustura Konputazionalaren Mekanika, Elementu Finituen Metodoa. Arlo honetakoak dira industria- eta ingurumen-prozesuak osatzen dituzten operazio fisiko, kimiko edo biokimikoen sorrera eta funtzionamendua hobetzeko Ingeniaritza eta Teknologia Kimikoan egiten diren ikerketak, baina kontuan izan behar da proiektuak kokapen egokiagoa izan dezakeela beste arlo batean.

11. arloa.– Komunikazio, Konputazio eta Elektronikaren Ingeniaritzak.

Ingeniaritza Elektriko, Elektroniko eta Automatikoak barnean hartzen ditu Ingeniaritza Elektriko klasikoaren eta kontrolaz diharduenaren gaikako eduki osoak eta Ingeniaritza Elektronikoaren edukien zati bat. Ingeniaritza Elektriko klasikoaren barruan makina elektrikoen diseinu eta erabilerari, energia elektrikoa sortzeko, garraiatzeko eta banatzeko prozesuei eta haien kudeaketari lotutako ikergaiak daude. Kontrolaren ingeniaritzak sistemen modelaketari, kontrol-teoria sistemetan aplikatzeari eta industria- eta etxe-prozesuak automatikoki kontrolatzeko gailuen eta ekipamenduen garapen eta erabilerari lotutako gaiak hartzen ditu barnean. Ingeniaritza Elektronikoaren barruan honako alor hauek daude: Kontrolaren Ingeniaritza, Ingeniaritza Elektrikoa, Gailu Elektronikoak, Mikroelektronika. Konputazioaren eta Teknologia Informatikoaren Zientzietan egiten diren lanketek alor hauekin dute zerikusia: Softwarearen Ingeniaritza; Datu Basea eta Segurtasuna; Konputagailuen eta Banatutako Sistemen Arkitektura; Sistema Adimendunak; Prestazio Handien Konputazioa eta Irudiaren Prozesaketa, Elektronika, Teknologia Fotonikoa, Komunikazio Optikoak, Telematika, Seinalearen Prozesaketa.

12. arloa.– Arkitektura, Ingeniaritza Zibila, Eraikuntza eta Hirigintza. Ingeniaritza Zibilak eta Arkitekturak barne hartzen dute azpiegitura zibilak hobeto planifikatu, diseinatu, eraiki, kontserbatu eta kontrolatzeko ikerketa guztia, bai eta arkitektura-eraikuntzei, hirigintzari eta lurraldearen antolaketari lotutakoa ere.

Gizarte Zientziak eta Giza Zientziak.

13. arloa.– Hezkuntza Zientziak. Psikologia. Psikologian egiten diren ikerketa guztiek osatzen dute, bai eta hauek ere: oro har, didaktikarekin zerikusia duten ikerketak; hezkuntza-gaietako didaktika espezifikoak; eta hezkuntzaren alderdi historikoak, psikologikoak eta metodologikoak. Alor hauek hartzen ditu barnean: Pedagogia, Didaktika, Hezkuntzaren Psikologia, Nortasuna, Ebaluazio eta tratamendu psikologikoak, Psikobiologia, Oinarrizko Psikologia, Psikologia Ebolutiboa eta Hezkuntzarena, Psikologia Soziala, Portaera Zientzien Metodologia.

14. arloa.– Gizarte Zientziak. Diziplina hauekin zerikusia duten zientzia-helburuak lantzen ditu: Soziologia, Gizarte Ikerketarako Teknikak, Zientzia Politikoa eta Administrazioarena, Kazetaritza, Ikus-entzunezko Komunikazioa, Publizitatea, Giza Geografia.

15. arloa.– Zuzenbidea. Ordenamendu juridikoko sektore eta diziplina guztiak biltzen ditu, ikuspuntu nazionaletik bezala nazioarteko ikuspuntutik ere. Arloan gai hauek sartzen dira: Zuzenbide Konstituzionala, Zuzenbide Administratiboa, Zuzenbide Zibila, Zuzenbide Prozesal Zibila, Zuzenbide Penala, Zuzenbide Prozesal Penala, Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Zuzenbide Pribatua, Europako Erkidego Zuzenbidea.

16. arloa.– Ekonomia. Hauek ditu ikerketa-esparrutzat: ekonomiaren oinarri teorikoak, metodo kuantitatiboen erabilera eta garapena eta haien aplikazio enpirikoa askotariko arazo ekonomikoetan. Diziplina ekonomikoek alor hauek hartzen dituzte: Ekonomia Aplikatua, Mikroekonometria, Lan Ekonomia, Familien Ekonomia, Enpresen Antolaketa, Gobernu Korporatiboa, Aplikazioak bankuetan eta zerbitzuetan, Erakundeen Ekonomia, Enpresen erregulazioa, konkurrentzia eta portaera, Gizarte Erantzukizun Korporatiboa, Analisi Ekonomikoaren Oinarriak, Teoria Ekonomikoa, Ekonomia Matematikoa, Informazioaren Ekonomia, Jokoen Teoria, Ekonomia Industrial, Makroekonomia, Nazioarteko Ekonomia, Finantza Enpirikoak.

17. arloa.— Filologia eta Filosofia. Filologia-esparruan Hizkuntza- eta Literatura-ikerketak sartzen dira, bai eta haiek kulturarekin eta gizartearekin dituzten harremanak ere. Diziplina horiei ikuspuntu teorikotik heltzen dieten lanak eta edozein historia-alditako hizkuntza edo literaturei buruzkoak biltzen dira arlo honetan. Bai eta Itzulpena eta Interpretazioa gaitzat dituzten ikerketak eta hizkuntzarekin eta literaturarekin zerikusia duten aplikazio eta baliabide teknologikoak garatzen dituztenak ere. Filosofiaren esparruari dagokionez, gai hauek ikertzen dira: errealitateari buruzko gai orokorragoak, haiek ezagutu ote ditzakegun, giza izaera eta gizakiak munduan betetzen duen lekua, bai eta zientzia partikularretan planteatzen diren eztabaida metodologiko eta kontzeptual orokor guztiak ere. Alor hauek hartzen ditu barnean: Literatura, Espainiar Literatura, Filosofia, Logikaren eta Hizkuntzaren Filosofia, Literatura Konparatua, Hizkuntza, Hizkuntzalaritza Orokorra, Filologia Klasikoa, Greziar Hizkuntzalaritza, Euskal Filologia, Filologia Modernoak, Literatura Ingelesa, Genero Ikasketak, Logika, Zientziaren Filosofia.

18. arloa.— Historia eta Arteak. Historia-diziplina guztiak sartzen dira, garaien eta espezialitateen arabera, hala nola Arkeologia, eta Zientzia eta Teknika Historiografikoak. Artearen esparruan gai hauek biltzen dira: Artearen Historia, Estetika eta Arteen Teoria, Musikaren Historia, Zinemarena eta Ikus-entzunezkoena, Konposizio Arkitektonikoa, Hirigintza eta Lurraldearen Antolaketa, Eskultura, Pintura eta Marrazketa, bai eta arte-ondarea zaharberritu eta kontserbatzearekin zerikusia duten zientziak eta teknikak, eta arte eszenikoak ere.

III. ERANSKINA

ESKABIDE-ORRIA. LAGUNTZA BERRIAK IKERKETA OROKORRA	ERREFERENTZIA	
	BARNE-KODEA	
DOKTORE EZ DIREN IKERTZAILEAK PRESTATZEKO DOKTORATU AURREKO PROGRAMA (2025-2026)		

A.– ESKATZAILEAREN DATU PERTSONALAK

Abizenak, izena							
NAN/AIZ		Sexua		☐	Gizonezkoa	☐	Emakumezkoa
Nazionalitatea				Jaioteguna			
Helbidea							PK
Egungo errolda-probintzia				EAEko erroldatze-data			
EAEko errolda-probintzia							
Helbide elektronikoa				Telefono mugikorra		Telefonoa	
Desgaitasun-maila	% 33ko desgaitasuna edo handiagoa ☐						

B.– DATU AKADEMIKOAK

TITULAZIO AKADEMIKOA

Ikasketak non egin dituen:		☐	EAE/Espainia	☐	Atzerria
Unibertsitatea					
Campusa					
Ikastetxea					
Maila					
Titulazioa					
Titulua noiz lortu den:					
Atzerrian egindako ikasketen kasuan, soilik:					
Homologazio-data					

Honi homologatutako ikasketak	
-------------------------------	--

1. MASTERRA

Hemen egina:		☐	EAE/Espainia	☐	Atzerria
Unibertsitatea					
Campus					
Ikastetxea					
Masterra					
Ikasi duzun edo ikasten ari zaren masterra zein datatan lortua					

2. MASTERRA

Masterra hemen egin da:		☐	EAE/Espainia	☐	Atzerria
Unibertsitatea					
Campus					
Ikastetxea					
Masterra					
Noiz lortu zuen ikasi duen edo ikasten ari den masterra					

MASTERRAREN AURREKO BATEZ BESTEKO NOTA
--

Lizentziako/Ingeniaritzako/Arkitekturako/Graduko/Diplomaturako ikasketen espedienteko batez besteko nota:	
---	--

C.– ESKABIDEAREN DATUAK

Modalitatea		Eremua	
-------------	--	--------	--

ZENTRO KONTRATATZAILEA

IFK	
Sozietatearen izena	

EZARPEN-ZENTROA

Kokapena		☐	EAE	☐	Beste batzuk
Erakundea					
IFK					
Fakultatea / Zentroa					
Departamentua					
Helbidea					
PK					
Herrialdea					
Helbide elektronikoa					

DOKTOREGO-PROGRAMA

Unibertsitatea	
Doktoregoa	
Herrialdea	

DOKTOREGO-TESIAREN PROIEKTUA

Izenburua	
Sektore sozioekonomikoa	

TESIAREN ZUZENDARIA

Abizenak, izena					
Helbide elektronikoa				Telefonoa	
Ezarpen-zentroan kontratatua	☐	BAI	☐	EZ	
Kontratatuta egonez gero bakarrik:					
☐	Funtzionarioa edo lan-kontratadun finkoa				
☐	Lan-kontratu mugagabea				
☐	Iraupen jakineko kontratua, bekaduna, bestelako kontratua			Amaiera-data	

TESIAREN ZUZENDARIKIDEA

Abizenak, izena					
Helbide elektronikoa				Telefonoa	
Ezarpen-zentroan kontratatua	☐	BAI	☐	EZ	
Kontratatuta egonez gero bakarrik:					
☐	Funtzionarioa edo lan-kontratadun finkoa				
☐	Lan-kontratu mugagabea				
☐	Iraupen jakineko kontratua, bekaduna, bestelako kontratua			Amaiera-data	

ELKARRIZKETA

Hizkuntza	☐	Gaztelania	☐	Euskara
-----------	--------------------------	------------	--------------------------	---------

Euskara aukeratuz gero, zure arloko epaimahaiko kideak EZ direnez Euskal unibertsitate-sistemakoak, jakin behar duzu aldebereko itzulpena erabiliko dela eta interpreteak ez direla adituak zientzia-gaietan, baizik eta aldebereko itzulpenean.

AGIRIAK (APLIKAZIORA IGO DENA)

Hizkuntza	☐	Gaztelania edo ingelesa	☐	Euskara
-----------	--------------------------	-------------------------	--------------------------	---------

1.– Agiriren bat euskaraz aurkeztu baduzu, zure arloko epaimahaiko kideak EZ direnez Euskal unibertsitate-sistemakoak, jakin behar duzu gaztelaniara itzultzeko Eusko Jaurlaritzaren Itzulpen Zerbitzu Ofiziala erabiliko dela.
2.– Agiriren bat euskaraz aurkeztu baduzu, pdf formatuan aurkezteaz gain, Word formatuan ere aurkeztu beharko duzu, behar bezala itzuli ahal izateko.

D.– ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Eskatzaileak hauxe ADIERAZTEN DU:

1.– (ESKATU DIOT / EZ DIOT ESKATU: erantzun dagokiona) helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabiderik beste administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen bati.

BAIETZ erantzunez gero, eskabidearen kopia erantsi behar da.

2.– (LORTU DUT / EZ DUT LORTU: erantzun dagokiona) helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabiderik beste administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen batetik.

BAIETZ erantzunez gero, emate-agiriaren kopia erantsi behar da.

3.– (SARTUTA NAGO / EZ NAGO SARTUTA: erantzun dagokiona) itzulketa- edo zehapen-prozedura batean.

BAIETZ erantzunez gero, prozedurari hasiera emateko agiriaren kopia erantsi behar da.

4.– (BADUT / EZ DUT: erantzun dagokiona) ordainketarik egiteke, dirulaguntzak itzultzea dela-eta.

BAIETZ erantzunez gero, prozedurari hasiera emateko agiriaren kopia erantsi behar da.

5.– (BADUT / EZ DUT: erantzun dagokiona) dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalen bat edo horretarako ezgaitzen duen legeko debekuren bat.

BAIETZ erantzunez gero, zehapenaren edo debekuaren kopia erantsi behar du.

6.– (SARTUTA NAGO / EZ NAGO SARTUTA: erantzun dagokiona) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan ezarritako gainerako debekuetako batean.

BAIETZ erantzunez gero, zehapenaren edo debekuaren kopia erantsi behar da.

7.– Aplikatzekoa den araudiaren arabera, prozedura hau bideratzen duen organoak ofizios egiaztatuko ditu, dagokion administrazioan, honako datu hauek:

- Hezkuntza Ministerioko unibertsitate-tituluen kontsulta-zerbitzua.
- Euskal foru-aldundietan, zerga-betebeharrak egunean dituela frogatzeko kontsulta.
- Estatuko Zerga Agentzian, zerga-betebeharrak egunean dituela frogatzeko kontsulta.
- Gizarte Segurantzaren betebeharrak ordainduta dituela frogatzeko kontsulta.
- Salbu interesdunak, arrazoiak eman, eta aurka egiten badu. Aurka egiteko eskubidea erabiltzea: <https://www.euskadi.eus/datu-babesaren-gaineko-eskubideak-egikaritu/web01-tramite/eu/>
- Kasu horretan, dagozkion egiaztagirak erantsi beharko dira eskabidearekin batera.

8.– Onuradun izateko eskakizun guztiak betetzen ditu.

9.– Konpromisoa hartzen dut Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko Zientzia Politikako Zuzendaritzari jakinarazteko dirulaguntza emateko eskatu eta kontuan hartzen diren baldintzaren bati eragiten dioten egoeretan izandako edozein aldaketa, bai eta edozein administrazioaren edo erakunde publiko zein pribaturen eskutik helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak jaso izanaren berri emateko ere.

Sin.:

Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa

Eskabidean ageri diren datu pertsonalak tratatuko dira, eta izen honetako tratamendu-jardueran sartuko dira: *Dirulaguntzak eta laguntzak*.

- Arduraduna: Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko Zientzia Politikako Zuzendaritza
- Helburua: Ikerketa finantzatzea eta bultzatzea
- Legitimazioa:

Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

– Hartzaileak:

Patente eta Marken Espainiako Bulegoa, BOE, EHAA.

– Eskubideak: Eskubidea duzu datuetara irispidea izateko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

– Informazio gehigarria: Datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsultagai duzu helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/informazio-klausulak/>

[illegible]

IV. ERANSKINA

ESKABIDE-ORRIA. LAGUNTZA BERRIAK IKERKETA ESPEZIFIKOA (NEUTRONIKA/HEZKUNTZA)	ERREFERENTZIA	
	BARNE-KODEA	
DOKTORE EZ DIREN IKERTZAILEAK PRESTATZEKO DOKTORATU AURREKO PROGRAMA (2025-2026)		

A.- ESKATZAILEAREN DATU PERTSONALAK

Abizenak, izena							
NAN/AIZ		Sexua	☐	Gizonezkoa	☐	Emakumezkoa	
Nazionalitatea				Jaioteguna			
Helbidea						PK	
Egungo errolda-probintzia			EAEko erroldatze-data				
EAEko errolda-probintzia							
Helbide elektronikoa			Telefono mugikorra		Telefonoa		
Desgaitasun-maila	% 33ko desgaitasuna edo handiagoa ☐						

B.– DATU AKADEMIKOAK

TITULAZIO AKADEMIKOAK				
Ikasketak non egin dituen:	☐	EAE/Espainia	☐	Atzerria
Unibertsitatea				
Campusa				
Ikastetxea				
Maila				
Titulazioa				
Titulua noiz lortu den:				
Atzerrian egindako ikasketen kasuan, soilik:				
Homologazio-data				
Honi homologatutako ikasketak				

1. MASTERRA

Hemen egina:		☐	EAE/Espainia	☐	Atzerria
Unibertsitatea					
Campus					
Ikastetxea					
Masterra					
Ikasi duzun edo ikasten ari zaren masterra zein datatan lortua					

2. MASTERRA

Hemen egina:		☐	EAE/Espainia	☐	Atzerria
Unibertsitatea					
Campus					
Ikastetxea					
Masterra					
Ikasi duzun edo ikasten ari zaren masterra zein datatan lortua					

MASTERRAREN AURREKO BATEZ BESTEKO NOTA

Lizentziako/Ingeniaritzako/Arkitekturako/Graduko/Diplomaturako ikasketen espedienteko batez besteko nota:	
---	--

C.- ESKABIDEAREN DATUAK

Modalitatea		Arloa	
-------------	--	-------	--

ZENTRO KONTRATATZAILEA

IFK	
Sozietatearen izena	

EZARPEN-ZENTROA

Kokapena		☐	EAE	☐	Beste batzuk
Entitatea					
IFK					
Fakultatea / Zentroa					
Departamentua					
Helbidea					
PK					
Herrialdea					
Helbide elektronikoa					

DOKTOREGO-PROGRAMA

Unibertsitatea	
Doktoregoa	
Herrialdea	

DOKTOREGO-TESIAREN PROIEKTUA

Izenburua	
Sektore sozioekonomikoa	

TESIAREN ZUZENDARIA

Abizenak, izena					
Helbide elektronikoa				Telefonoa	
Ezarpn-zentroan kontratatua	☐	BAI	☐	EZ	
Kontratatuta egonez gero bakarrik:					
☐	Funtzionarioa edo lan-kontratudun finkoa				
☐	Lan-kontratu mugagabea				
☐	Iraupen jakineko kontratua, bekaduna, bestelako kontratua			Amaiera-data	

TESIAREN ZUZENDARIKIDEA

Abizenak, izena					
Helbide elektronikoa				Telefonoa	
Ezarpn-zentroan kontratatua	☐	BAI	☐	EZ	
Kontratatuta egonez gero bakarrik:					
☐	Funtzionarioa edo lan-kontratudun finkoa				
☐	Lan-kontratu mugagabea				
☐	Iraupen jakineko kontratua, bekaduna, bestelako kontratua			Amaiera-data	

ELKARRIZKETA

Hizkuntza	☐	Gaztelania	☐	Euskara
-----------	--------------------------	------------	--------------------------	---------

Euskara aukeratuz gero, zure arloko epaimahaiko kideak EZ direnez Euskal unibertsitate-sistemakoak, jakin behar duzu aldebereko itzulpena erabiliko dela eta interpreteak ez direla adituak zientzia-gailetan, baizik eta aldebereko itzulpenean.

AGIRIAK (APLIKAZIORA IGO DENA)

Hizkuntza	☐	Gaztelania edo ingelesa	☐	Euskara
-----------	--------------------------	-------------------------	--------------------------	---------

1.– Agiriren bat euskaraz aurkeztu baduzu, zure arloko epaimahaiko kideak EZ direnez Euskal unibertsitate-sistemakoak, jakin ezazu gaztelaniara itzultzeko Eusko Jaurlaritzaren Itzulpen Zerbitzu Ofiziala erabiliko dela.

2.– Agiriren bat euskaraz eman baduzu, agiri horrek pdf formatuan egoteaz gain Word formatuan ere egon beharko du, itzulpen-lana errazteko xedez.

D.– ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Eskatzaileak hauxe ADIERAZTEN DU:

1.– (ESKATU DIOT / EZ DIOT ESKATU: erantzun dagokiona) helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabiderik beste administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen bati.

BAIETZ erantzunez gero, eskabidearen kopia erantsi behar da.

2.– (LORTU DUT / EZ DUT LORTU: erantzun dagokiona) helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabiderik beste administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen batetik.

BAIETZ erantzunez gero, emate-agiriaren kopia erantsi behar da.

3.– (SARTUTA NAGO / EZ NAGO SARTUTA: erantzun dagokiona) itzulketa- edo zehapen-prozedura batean.

BAIETZ erantzunez gero, prozedurari hasiera emateko agiriaren kopia erantsi behar da.

4.– (BADUT / EZ DUT: erantzun dagokiona) ordainketarik egiteke, dirulaguntzak itzultzea dela-eta.

BAIETZ erantzunez gero, prozedurari hasiera emateko agiriaren kopia erantsi behar da.

5.– (BADUT / EZ DUT: erantzun dagokiona) dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalen bat edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren bat.

BAIETZ erantzunez gero, zehapenaren edo debekuaren kopia erantsi behar du.

6.– (SARTUTA NAGO / EZ NAGO SARTUTA: erantzun dagokiona) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan ezarritako gainerako debekuetako batean.

BAIETZ erantzunez gero, zehapenaren edo debekuaren kopia erantsi behar da.

7.– Aplikatzekoa den araudiaren arabera, prozedura hau bideratzen duen organoak ofizioz egiaztatuko ditu, dagokion administrazioan, honako datu hauek:

- Hezkuntza Ministerioko unibertsitate-tituluen kontsulta-zerbitzua.
 - Euskal foru-aldundietan zerga-betebeharrak egunean dituela frogatzeko kontsulta.
 - Estatuko Zerga Agentzian, zerga-betebeharrak egunean dituela frogatzeko kontsulta.
 - Gizarte Segurantzaren, betebeharrak ordainduta dituela frogatzeko kontsulta.
- Salbu interesdunak, arrazoiak eman, eta aurka egiten badu. Aurka egiteko eskubidea erabiltzea: <https://www.euskadi.eus/datu-babesaren-gaineko-eskubideak-egikaritu/web01-tramite/eu/>
Kasu horretan, dagozkion egiaztagirak erantsi beharko dira eskabidearekin batera.

8.– Onuradun izateko eskakizun guztiak betetzen ditu.

9.– Konpromisoa hartzen dut Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko Zientzia Politikako Zuzendaritzari jakinarazteko dirulaguntza emateko eskatu eta kontuan hartzen diren baldintzaren bati eragiten dioten egoeretan izandako edozein aldaketa, bai eta edozein administrazioaren edo erakunde publiko zein pribaturen eskutik helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak jaso izanaren berri emateko ere.

Sin.:

Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa

Eskabidean ageri diren datu pertsonalak tratatuko dira, eta izen honetako tratamendu-jardueran sartuko dira: *Dirulaguntzak eta laguntzak*.

- Arduraduna: Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko Zientzia Politikako Zuzendaritza
- Helburua: Ikerketa finantzatzea eta bultzatzea
- Legitimazioa:

Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

– Hartzaileak:

Patente eta Marken Espainiako Bulegoa, BOE, EHAA.

– Eskubideak: Eskubidea duzu datuetara irispidea izateko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

– Informazio gehigarria: Datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsultagai duzu helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/informazio-klausulak/>

[illegible]

V. ERANSKINA

ESKABIDE-INPRIMAKIA. LAGUNTZA BERRITZEKO IKERKETA OROKORRA / IKERKETA ESPEZIFIKOA	ERREFERENTZIA	
	BARNE-KODEA	
DOKTORE EZ DIREN IKERTZAILEAK PRESTATZEKO DOKTORATU AURREKO PROGRAMA 2025-2026		

A.– ESKATZAILEAREN DATU PERTSONALAK

Abizenak, izena					
NAN/AIZ					
EAEko errolda-probintzia					
Helbidea				PK	
Helbide elektronikoa			Tel. mugikorra		Tel. finkoa
Zein urtetan eman zen laguntza			Lehenengoz eman zeneko erreferentzia		
Modalitatea			Eremua		
Zuzendaria					
Zuzendarikidea					

EZARPEN-ZENTROA

IFK	
Sozietatearen izena	

B.– ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Eskatzaileak hauxe ADIERAZTEN DU:

1.– (ESKATU DIOT / EZ DIOT ESKATU: erantzun dagokiona) helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabiderik beste administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen bati.

BAIETZ erantzunez gero, eskabidearen kopia erantsi behar da.

2.– (LORTU DUT / EZ DUT LORTU: erantzun dagokiona) helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabiderik beste administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen batetik.

BAIETZ erantzunez gero, emate-agiriaren kopia erantsi behar da.

3.– (SARTUTA NAGO / EZ NAGO SARTUTA: erantzun dagokiona) itzulketa- edo zehapen-prozedura batean.

BAIETZ erantzunez gero, prozedurari hasiera emateko agiriaren kopia erantsi behar da.

4.– (BADUT / EZ DUT: erantzun dagokiona) ordainketarik egiteke, dirulaguntzak itzultzea dela-eta.

BAIETZ erantzunez gero, prozedurari hasiera emateko agiriaren kopia erantsi behar da.

5.– (BADUT / EZ DUT: erantzun dagokiona) dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalen bat edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren bat.

BAIETZ erantzunez gero, zehapenaren edo debekuaren kopia erantsi behar du.

6.– (SARTUTA NAGO / EZ NAGO SARTUTA: erantzun dagokiona) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan ezarritako gainerako debekuetako batean.

BAIETZ erantzunez gero, zehapenaren edo debekuaren kopia erantsi behar da.

7.– Aplikatzekoa den araudiaren arabera, prozedura hau bideratzen duen organoak ofizios egiaztatuko ditu, dagokion administrazioan, honako datu hauek:

- Hezkuntza Ministerioko unibertsitate-tituluen kontsulta-zerbitzua.
 - Euskal foru-aldundietan, zerga-betebeharrak egunean dituela frogatzeko kontsulta.
 - Estatuko Zerga Agentzian, zerga-betebeharrak egunean dituela frogatzeko kontsulta.
 - Gizarte Segurantzaren betebeharrak ordainduta dituela frogatzeko kontsulta.
- Salbu interesdunak, arazoak eman, eta aurka egiten badu. Aurka egiteko eskubidea erabiltzea: <https://www.euskadi.eus/datu-babesaren-gaineko-eskubideak-egikaritu/web01-tramite/eu/>
- Kasu horretan, dagozkion egiaztagirak erantsi beharko dira eskabidearekin batera.

8.– Onuradun izateko eskakizun guztiak betetzen ditu.

9.– Konpromisoa hartzen dut Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko Zientzia Politikako Zuzendaritzari jakinarazteko dirulaguntza emateko eskatu eta kontuan hartzen diren baldintzaren bati eragiten dioten egoeretan izandako edozein aldaketa, bai eta edozein administrazioaren edo erakunde publiko zein pribaturen eskutik helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak jaso izanaren berri emateko ere.

Sin.:

Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa

Eskabidean ageri diren datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta izen honetako tratamendu-jardueran sartuko dira:

Dirulaguntzak eta laguntzak.

- Arduraduna: Zientzia Politikako Zuzendaritza, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila
- Helburua: Ikerketa finantzatzea eta bultzatzea
- Legitimazioa:

Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

- Hartzaileak: Patente eta Marken Espainiako Bulegoa, BOE, EHAA.
- Eskubideak: Eskubidea duzu datuetara irispidea izateko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.
- Informazio gehigarria: Datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsultagai duzu helbide honetan: www.euskadi.eus/transparencia-y-derecho-a-la-informacion/web01-ejeduki/es/transparencia/054300-cap2-es.shtml

ERANSKINA. TELEMATIKOKI ERANTSITAKO AGIRIAK

[illegible]